



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA

**IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA
Gradu Bukaerako Lana (GBL)**

Ikasleak: Amaiur Perez eta Nora Vicente

Bezeroa: Udalbiltza (Oiartzun)

Elkarrekin Zuberoan proiektuaren gaineko dokumentala

2015eko ekainaren 19a.

LABURPENA

Elkarrekin Zuberoan, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako haurrak batzen dituen lehenengo udalekua da. Egun Euskal herriak hiru errealitate administratibo eta bi estatu desberdinen artean banatuta dago. Euskal Herri bat eta bakarra nahi badugu ezinbestekoa da askatasuna. Hau da, independentzia. Lurraldeen arteko kohesio bidean, harreman fisikoak eta emozionalak beharrezkoak dira. Horretarako herra mintza, euskara izango da.

Hitz gakoak: Elkarrekin Zuberoan, udalekuak, Euskal Herria, lurralde kohesioa, euskara, hezkuntza, haurrak, begiraleak, gurasoak, Udalbiltza, Ikastolen Elkarrekin, Uda-leku Elkarrekin, independentzia, askatasuna...

RESUMEN

Elkarrekin Zuberoan es un proyecto cuyo objetivo es unir niños de las siete provincias de Euskal Herria. Hoy en día, Euskal Herria tiene tres realidades administrativas y esta dividida en dos estados que son Francia y España. Si queremos un pueblo vasco, único, la única opción es ser libre, independiente. En el camino de una cohesión territorial son necesarias las relaciones físicas y emocionales. La herramienta para que esto se lleve a cabo, será el euskera.

Palabras claves: Elkarrekin Zuberoan, campamento de verano, Euskal Herria, cohesión territorial, euskara, educación, niños, monitores, padres, Udalbiltza, Ikastolen elkarrekin, Udaleku Elkarrekin, independencia, libertad...

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA. 2015
Elkarrekin Lan Zuberoan: dokumentala.

Amaiur Perez eta Nora Vicente

Fakultateko tutorea: Ainhoa Larrañaga

Erakundeko tutorea: Ibai Esteibarlanda

Bezeroa: Udalbiltza

AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. AURREKARIAK

2.1 EUSKAL HERRIKO EGOERA POLITIKO-ADMINISTRATIBOA

2.1.1 EUSKAL HERRIKO EGOERA GAUR EGUN

2.2 LURRALDETSUNA

2.2.1 EUSKAL ESTATU EZA

2.2.2 LURRALDETSUNA ETA EUSKARA

2.3 KULTUR ONDAREA EUSKAL HERRITARREN IDENTITATE

2.4 IDENTITATEA ETA EUSKAL NORTASUNA

2.4.1 IDENTITATEA NORTASUN INDIBIDUAL ETA

KOLEKTIBO GISA

2.4.2 ASKOTARIKO IDENTITATEAK

2.5 HEZKUNTZA IDENTITATEAREN OINARRI

2.5.1 CURRICULUMA

2.5.2 EUSKAL IDENTITATEA

3. IKERKETA APLIKATUA, SAKONTZE APLIKATUA

3.1 METODOLOGIA

3.2 EMAITZAK

3.2.1 LURRALDETSUNA

3.2.2 HEZKUNTZA

3.2.3 EUSKARA

3.2.4 ELKARREKIN ZUBEROAN PROIEKTUA

3.2.4.1 ZER DA?

3.2.4.2 EUSKARA ELEMENTU AMANKOMUNA

3.2.4.3 ESPEKTATIBAK ETA BALORAZIOA

4. ONDORIOAK

4.1 Lurraldetasuna

4.2 Euskal estatu eza

4.3 Euskal Identitatea

4.4 Euskara

4.5 Hezkuntza

4.6 Euskal Kurrikuluma

4.7 Udalekuetako bizipenak

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1. SARRERA

Lan honetan, Elkarrekin Zuberoan udalekuaren helburu estrategikoa aztertuko da. Beraz, besteak beste, Euskal Herriko botere administratiboa landuko da. Hontaz, Udalbiltzaren ardatz estrategikoko bati erantzun bat emanaz, Elkarrekin Zuberoan udalekuak Euskal Herriko hainbat txokoetako umeen elkar-bizitza sustatzea du helburu. Honetan, oso garrantzitsua da euskal lurraldetasuna lantzea (zazpi probintziak). Zallok (2006) dioen bezala, Euskal Herria, Baskonia, lurraldetasunaren aldetik eta kontzeptualki, euskaldunen herria da, historia, kultura, hizkuntza eta identitateari dagokionez. Hala ere, euskal estatuaren bidean, nazioak estatua behar du. Espainiako estatuak espainiar nazio bakarra nahi eta behar du, baina ezin du lortu; euskal nazioak estatua behar eta nahi du, baina ezin eskuratu dabil. Horregatik, estatu-eraikuntza ez da inoiz amaitzen, prozesu etengabea da: inoiz ez da estatua, kontzeptu gisa, ixten, biribiltzen, estatu totalitarioaren ameskerian ez bada. (Ipar Hegoa Fundazioa, 2012)

Udaleku hauen helburu nagusia hego eta ipar euskal herriaren arteko zubi politiko eta sozial bat egitea da. Kohesio horren bidean, euskara izango da zubi hori ahalbideratuko duena. Euskal Herrian, ordea, euskarak errealitate juridiko desberdinak bizi ditu. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan euskara da hizkuntza ofiziala. Ipar Euskal Herrian, aldiz, frantsesa (Agirreazkuenaga, Prieto, 2009) Beraz, ezinbestekoa da hizkuntzaren lanketa egitea.

Ipar eta Hego Euskal Herria bata bestearen parean egon arren, oso desberdina da bakoitzak euskararekiko bizi duen egoera. Zer esanik ez, egoera horretan hezkuntzak duen garrantzia. Frantzia eta Espainiako hezkuntza sistemek, lurralde hauetako haurren harremanetan eragin zuzena daukala ezin daiteke uka. Izan ere, euskara ardatz duten udalekuak direnez, hezkuntza eredu desberdin horiek eta euskararen erabilera desberdinek, haurren elkar-biltze horretan zein eragina duten aztertuko da.

Ipar Euskal Herrian euskarak bestelako egoera bizi du. Batetik, hizkuntza ofiziala frantsesa da eta euskara eskubide indibidualtzat jotzen da. Ondorioz, eskualdeetako hizkuntzek ez dute lekurik ez administrazioan ezta zerbitzu

publikoan ere. Eta, bestetik, euskararen irakaskuntza hautazko gaia da eta ez frantsesaren moduan beharrezkoa dena. Euskararen irakaskuntza familiak duen atxikimenduari eta betiereko militarismoari dagozkie (Heguy, Baxok, 2003).

Gainera, euskarak ez du lurraldetasunean soilik eragiten. Izan ere, euskara, euskal identitatea sortzerako garaian ezinbesteko elementua den moduan, euskal ondarearen zati handi bat ere bada. Eta, Arrietak (2008) dioen moduan, "Euskal kultur ondarea da euskal herriaren nortasun adierazgarririk nagusia eta herri honek mundu osoko kulturari kondairan zehar ematen dionaren erakusgarririk garrantzitsuena". Hori dela eta, euskal identitatearen gainean sakontzea beharrezkoa litzake, haurren arteko harremanak baldintzatzen dituen baita.

Euskal identitatea, beraz, beste lurraldeekiko bereizten duen singularitasun bat da. Euskal Herrian, detaile hori sustatzeaz arduratzen den eragile nagusia Ikastola da eta honi esker, besteak beste, lortu da euskal nortasuna aurrera eramatea eta haurren arteko harremanak sortzea. Hori kontuan hartuz, Ikastolen papera aztertzea ezinbesteko bihurtzen da, lurraldetasuna eta euskal identitatearekin batera. Ezin da aipatu gabe utzi, eskolek ere euren lana egiten dutela eta hauek ere gure herriaren parte direla. Baina, kasu honetan, Ikastolek duten izaera nazionala eskuratzearen lorpenarengatik eta udaleku hauen atzean egoteagatik, arreta honetan jartzea erabaki da.

Aipatu beharra dago, udalekuak edo aisialdia oso bide egokia dela, besteak beste, sustatzeko gure banaketa administratiboak sortzen dituen desdoitzeak. Aisialdiak aukera eskeintzen du, momentu honetan, Euskal Herriko zonalde desbedinetako gazteak elkarrekin, egun batzuk igaroz, harremanak egiteko. Hau da, identitate bera duten, baina kultura/ohitura desberdina partekatu eta harremanak sortzeko aukera paregabea ematen du.

Modu honetan, fokoa pixkat zabaldu eta zuzenean, Elkarrekin Zuberoan udaleku aisialdi horrek dituen helburuekin lotuta dauden hainbat kontzeptu oinarrizko garatuko dira lan honetan.

Lan honen ikerketa objektua Elkarrekin Zuberoan udalekuak egitearen emaitza aztertzea eta horren inguruko dokumental bat egitea da. Horretarako, ezinbestekoa da Euskal Herriko egora politiko administratiboa lantzea. Honekin batera, euskara eta lurraldetasuna jorratzea beharrezkoa da. Baita hezkuntza eredia ere, bertan jasotzen baita Ikastolek hezkuntzaren bidez lortu eta garatu nahi dituzten helburuak. Izan ere, alderdi guzti hauek dira udaleku hauen egitasmoa osatzen dutenak. Horretarako, bi helburu nagusi aztertuko dira.

Alde batetik, Euskal Herriko botere administratiboa lantzea beharrezkoa da euskal lurraldetasunaren inguruan hitz egiten dugunean. Euskal Herriak egoera administratibo desberdinak bizi ditu, beraz, horrek euskal lurraldetasunaren eraikuntzan zein eragin duen aztertzea ezinbestekoa izango da. Baina lurraldetasunaren eraikuntza honetan, badago zuzenki eragiten dion beste elementu bat: euskara.

Euskara hizkuntza, euskal identitatearen oinarria da. Hau sustatzearen arduradun nagusietako bat, beste hainbaten artean, Ikastolak dira. Identitate osatze horretan hauen papera funtsezkoa da, hauei esker euskarak azken urteetan irautea lortu baitu. Hori dela eta, honetan sakontzeak ezinbesteko garrantzia dauka. Izan ere, udaleku hauetan sortzen diren harremanetan zuzeneneko eragina du bakoitzak jaso duen heziketak. Ondorioz, harreman horietan euskarak eta euskal identitatearen eragina zein den aztertzea izango da bigarren helburua.

Aipatutako helburu hauei erantzun bat emateko, elkarrizketa zuzenak izango dira nagusi lan honetan. Gure proiektuaren ardatz nagusia Elkarrekin Zuberoan udalekuak izanik, Hego eta Ipar Euskal Herriko 9-15 urteko 100 ume izango dira protagonista nagusi gure lan honetan. Bestalde, udalekuetara joatearen erabakia gurasoena den heinean, oso garrantzitsua izango da hauen testigantza jasotzea. Gainera, begiraleen papera ere ezinbestekoa izango da udalekuen helburua aurrera eramateko. Izan ere, eurek landu beharko dute ikasleekin udalekuen helburu estrategikoa. Beraz, guraso eta begiraleen lana aztertuko da.

Horretaz aparte, Ikastolen Elkarteak eta Udaleku Elkartearen lana ezinbestekoa den heinean, beharrezkoa izango da hauen testigantza jasotzea. Hori dela eta,

Ikastolen Elkarteko jendea, Udalekuen Elkartekoak, gurasoak, begiraleak eta umeak izango dira elkarrizketatuak izango direnak.

Udalekuekin zerikusia dutenen testigantza hauek emango diote ibilbidea dokumentalari. Izan ere, aproposa da hauen ikuspuntu desberdinak jasotzea, bai udalekuetan zuzenean parte hartzen dutenen ikuspuntua, baita horien atzean daudenen ikuspuntua ere. Horiek baitira udaleku hauen helburu eta zergatia azaltzeko aproposenak. Testigantza horiek gabe ezin daiteke eta ulertu guzti horren aurrean eta atzean gertatzen dena.

Bestalde, hiru egunez (Martxoak 25, 26 eta 27) pasa diren udalekuetan parte hartutako haurrak berriz ere bilduko dira, egun horietan zehar ekimen desberdinak egiteko asmoz. Elkarrekin Zuberoan udalekuen dinamika berdina jarraituko duen aurre-saio bat izango da. Bertan, sei begirale (horien artean, Udaleku Elkarteko burua den Nagore Amundarain) eta 60 ikasle egongo dira. Hori horrela, eta oreka bat bilatu nahian, Nagore Amundarain, bi begirale (bata hegoaldekoa eta bestea iparraldekoa) eta sei ikasle (hiru hegoalde eta hiru iparraldekoak) izango dira elkarrizketatuak.

Amaitzeko, etorkizunari begira, umeekin etnografia bat egitea proposatzen da, azterketa sakonago bat egiteko helburuarekin. Udalekuetan bertan egonik, naziotasuna nola lantzen den aztertzeke aukera aproposa da eta.

1.AURREKARIAK

3.1 Euskal Herriko egoera politiko-administratiboa

Egitura politiko-administratiboari bagagozkio, Euskal Herria bi Estatutan (Frantzia eta Espainia) eta hiru administrazio-lurraldetan dago banatuta: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Komunitatea Espainian eta Ipar Euskal Herria Frantzian.

Iñaki Gezala (2015), Orreagako kidearen hitzetan, Euskal Herria herri konkistatua da. Gaur egun, eta duela 600 urte genuen lurraldea ez da berdina. Lurraldea lapurtu, puskatu eta kolonizatu egin dute. Esan bezala, lurraldea bi estatu inperialisten eskutan dago; Frantzia eta Espainia.

Komunitate horien burujabetasun eta botere-mailan ere alde handiak daude. Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroak euren gobernu-administrazio eta parlamentu propioak dituzte, bai eta legedia garatzeko eta beren diru-baliabideak lortzeko eta kudeatzeko sistemak ere. Ipar Euskal Herrian, aitzitik, ez dago horrelakorik.

Are gehiago, Ipar Euskal Herria, Frantziako Estatuaren egiturari jarraiki, Atlantikoko Pirinioen Departamentuan dago Biarnorekin batera, eta departamentu hori Akitaniako erregioaren zati besterik ez da. Beraz, erabaki-ahalmena duten organoak oso urruti geratzen zaizkio. (Euskara Institutua, d.g)

Denboran atzera bagoaz, Euskal Herria herri konkistatua dela dio Gezalak (2015). Agirre eta Rekalde (2012) ere horretan daude. 1512ko data memoria kolektiboan iltzaturik geratu da, estatuaren, independentziaren eta subiranotasunaren galeraren erreferente gisa. Ordukoa, Nafarroako Erresumaren amaiera ekarri zuen konkistetako bat da; ez bakarria, ordea. Gertaera historiko hark, gaur egunera arte iritsi diren ondorioak izan zituen.

Nafarroa izan da azken 15 mendeetan Euskal Herriaren ardatza edo zentralitatea: gure historia kontatzerakoan, kobazuloen garaietatik karlistaldietara

salto egiten da. Itzali duten garai horretan, estatu politiko bat izan zen, eta euskaldunok antolatuta egon ginen, Nafarroa izan zen, beraz, gure estatua. Euskaldunen tokia, hortaz, Nafarroa da, eta hori garbi zeukaten aurrekoek. Nafar bezala antolatu dugu guk geure burua mendeetan, estatu bezala. Memoria hori azken bi mendeetan kendu egin digute. (Agirre, Rekalde, 2012)

Karlos III.aren eta Zuria Nafarroakoaren hilobian grafikoki irudikatuta dago konkistaren afera: bi txakur (Frantzia eta Espainia) lehian dabilta hezur bat (Nafarroa) nork harrapatuko. Gaztelak lortu zuen zati handiena: 1200ean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxa konkista zituen; eta 1512an, Nafarroa Garaia. Frantziak bereganatu zuen 1620an Nafarroa Beherean biziraun zuen estatu txikia. (Agirre, Rekalde, 2012)

3.1.1 Errealitate politikoa egun Euskal Herrian

Aipatutako kolonizazioari esker, hainbat errealitatearen aurrean aurkitzen gara Euskal Herrian. Badaude lurralde banaketa administratibo hori babestu eta Espainiar estatuaren parte sentitzen direnak, badaude Euskal Herria bere osotasunean onartu baina erosotasunean bizi direnak, banaketak arazorik sortzen ez dienak; ez dute independentzia nahirik, hain zuzen. Baina badaude ere, Euskal Herriarentzako independentzia nahi eta horren alde borrokatzen dutenak. Herriaren biziraupenerako boterea ezinbestekotzat jotzen dutenak.

Gaur egun bi ildo edo estrategia desberdin ditugu Euskal Herriaren independentzia urratzeko bidean. Horren aurrean, haxe da Orreagak (2014) Galdakaon emandako hitzaldian erabakitzeko eskubidearen eta autodeterminazioaren inguruan esandakoa:

Erabakitzeko eskubidea:

Erabakitzeko eskubidearen oinarria, demos batek hauteskunde batzuetan gehiengoa lortuz, edoizein gauza erabaki dezakeela da. Esan bezala, erabakitzeko eskubidearen subjektu politikoa demos-a da. Demos-a bere burua

demokratikotzat duen estatu bateko herritarrak dira. Herritartasuna estatuek ematen dutenez, demosa estatu espainola eta frantsesa dira kasu honetan.

Erabakitzeko eskubidearen kasuan, askatasuna eskatu egiten da. Hala ere, askatasuna beste aukera bat gehiago izango da, independentzia izan daitekeen bezala.

Erabakitzeko eskubidea hautatuz gero, hainbat kontzeptu errespetatu behar dira. Hauteskunde bidez gehiengoak dionea onartu behar den heinean, demosa definitua eta guztiongandik onartua egon behar da. Hala ere, hainbat arrisku ere badaude: sistema demokratiko baten barruan bakarrik ulertu daiteke erabakitzeko eskubidea. Izan ere, okupatuta dagoen herri batek ezin baitu okupatzaileekin batera ezer erabaki.

Beraz, erabakitzeko eskubidearen bitartez transmititzen den mezua honakoa da: Herriaren ukazioa ematen den momentuan, independentzian sinisten ez dela ikusten da. Estrategia propioa ez dagoenez, etsaiarena egiten da.

Autodeterminazioa:

Kontzeptu honen oinarria, herri guztiek zein gobernu mota nahi duten aukeratu, garapen ekonomiko, sozial eta kultural propioa bilatzeko eta antolaketa propio bat sortzeko eskubidea dutela da. Autodeterminazioaren subjektu politikoa herria da. Beren nortasunaren kontzientzia dutenak, beraiena uste duten lurralde bati atxikiak eta zuzenki edo zeharka kontrolatzen dituzten baliabide eta energiak erabiliz beren beharrak betetzen dituzten gizatalde antolatuak, hain zuzen.

Autodeterminazioaren kasuan, askatasuna ez da eskatzen, gauzatu egiten da. Eta honetan, askatasuna da aukera bakarra. Erabakitzeko eskubidean gehiengoek diotena onartu behar den moduan, autodeterminazio eskubidean herri bat esistitu behar dela azpimarratzen da. Hala ere, honetan ere badaude arriskuak: indarrik eta estrategia argirik ez badago, etsaiak, autodeterminazio eskubidea, manipulaturako demosaren zati baten inposaketa bezala aurkeztuko du. Eta ondorioz, demokratikoa ez dela esango du.

Autodeterminazio eskubidearen kasuan, mezua garbia da: ez dira etsaiaren manipulazioetara jauziko. Gainera, Larrañaga-k (2015) dioten bezala Nazioarteko Komunitateak herri zapaldu guztiek autodeterminazio eskubidea aitortzen du.

Bi kontzeptu hauek aztertu ondoren, Orreagak (2014) autodeterminazioaren aldeko apostua egiten du honako hau argudiatuz:

“Biolentziaren bitartez gure askatasuna lapurtu zigutenetik, zapalkuntza egoera batean eta ez demokrazian bizi den herri bat osatzen dugulako eta herri garen heinean, zein gobernu mota nahi dugu aukeratu, garapen ekonomiko sozial eta kultural propioa bilatzeko eta antolaketa propio bat sortzeko eskubidea dugulako, askatasuna berreskuratzea da gure aukera bakarra. Askatasunerako bide horretan ezin dugu zapaltzaileen manipulazioetan jauzi eta re gutxiago erekaz ezer erabaki. Beraz, estrategia nacional propioa eraiki begar dugu, estrategia horren inguruan indarrak metatuz, askatasuna gauzatu ahal izateko. Hau da, independentzia lortu ahal izateko. Bezain besteko boterea lortzeko helburuarekin.” (Orreaga, 2014)

Larrañagak (2015) ildo berdinari heltzen dio. Erabakitzeko eskubidearen gakoa “demos” batek hauteskude batzuetan gehiengoa lortuz edozein gauza erabakitzeko ahalmena duen heinean, bere burua demokratikotzat duen estatu bateko herritarrez ari garela dio Larrañagak. Ondorioz, horrek sistema demokratiko batean gaudela onartzen dugula dio. Beraz, bere hitzetan:

“Ondorioz, sistema demokratiko baten gaudela onartzen dugu. Aldiz, herri okupatua garela onartzen badugu, ezin ditugu zapaltzen gaituzten estatuak demokratikotzat hartu eta okupatzaileari ezin diezaiokegu gure askatasunaren gaineko erabakimenik eman. Okupatzailearekin batera bozkatzera onartzen dugu eta askatasuna, gure etorkizunerako aukera bat baino ez da.” (Larrañaga, 2015)

Era berean, Gezalak (2015) herritarren artean gure etorkizuna hauteskunderen bitartez lortuko denaren ideia okerra oso hedatua dagoela esaten du. Honek,

lurraldetasunaren inguruko eztabaida kontraproduzenteak sortzen ditu. Baita inposatutako zatiketa markoa propietzat eta naturalizat hartzea ere.

Honen arira, Iparlak (2011) “El pueblo vasco bajo el imperialismo” dokumentuan giza eskubideen inguruan hitz egiten du. Giza eskubideak bozkaezinak diren berezko eskubideak dira. Era berean, askatasuna eta demokraziaren sortzailea dira. Giza eskubideak ematen ez eskatzen ez diren eskubideak dira. Era honetan, hauen aurkako erasoak nazioarteko krimenak kontsideratzen dira.

Dokumentu honetan, Iparlak (2011) lehen Orregak emandako hitzaldian (2014) aipatutako kontzeptuen definizioak ematen ditu ondorio batzuetara eramaten dituztenak:

Demokrazia , herriaren botere politikoa dela esaten du. Gainera, herriak botere euki ahal izateko oinarrizko eskubideak existitu behar direla azpimarratzen du. Bestetik, autodeterminazio eskubideaz dihardu. Eskubide hau herriei lotutako oinarrizko giza eskubide garrantzitsuena dela azpimarratzen du. Eta azkenik, erabakitzeko eskubidearen definizio bat ematen du bere lanean. Erabakitzeko eskubidea berehalako independentzia gauzatzea inposaketa bat bezala ulertzen dutenak dira. Beraz, demokraziaren aurka dagoen kontzeptua.

Hau azalduta, elkarren artean kontrajarrita dauden hainbat ondorio azaltzen ditu Iparlak (2011) bere dokumentuan:

1. Ondorioa: Ezin da demokraziarik existitu oinarrizko giza eskubiderik gabe.
2. Ondorioa: Autodeterminazio eskubidea demokratikoa da
3. Ondorioa: Autodeterminazio eskubidea oinarrizko eskubidea da.
4. Ondorioa: Espainian eta Frantzian demokrazia dagoela onartzen du Erabakitzeko eskubideak.
5. Espainian eta Frantzian oinarrizko eskubideak existitzen direla eta errespetatzen direla onartzen du erabakitzeko eskubideak.
6. Espainian eta Frantzian autodeterminazio eskubidea errespetatzen da.

Ondorio hauek ikusita Iparlak galdera bat proposatzen du: “Espainian eta Frantzian ez dago demokraziarik?” ala “Espainian edo Frantzian ez dago herri okupaturik?”

Galdera honi erantzuna emanez, Esparzak (2012) ez garela demokrazia batean bizi dio. Aipatutakoa kontuan izanik, bi ildoak kontrajartzen direla ikusi daiteke.

3.2 Lurraldetasuna

Lurraldea ez da eszenatoki hutsa, non eragile publikoek zein pribatuek beren jarduketak garatzen dituzten, aitzitik, errealitatea da. Izan ere, errealitate horren morfologian faktore politiko-administratibo, ekonomiko, urbanistiko, sozial eta kulturek parte hartzen dute. Osagai independenteen multzoak eratutako errealitatea da lurraldea.

Gezalak (2015) dioten bezala, lurralde zehatz batean kokatzen dira herriak. Beraz lurraldetasuna, herri batek berea duen lurraldeari deituko genioke; herri horren gobernuak agintzen duen eremuari, hain zuzen.

Era berean, bere lurraldea gobernatzen duen herri batek gauza asko egin ditzake Gezalaren (2015) ustez: populazioa antolatu, legeak betearazi, eskubideak bermatu, biztanleen arteko elkarbizitza erraztu eta hobetu, ekonomia garatu, hauteskundeak egin...

Rekalde eta Agirrerren (2012) ustez:

“Bere buruari antolaketa ekonomikoa, politikoa, estrategikoa eta abar eman dion herria gara”

Espainiako Erresuma eta Frantziakoa kanpotik etorritako inbasioen ondorioak dira, bisigodoen eta frankoen inbasioen ondorioak, hain zuzen. Baskoien herria, berriz, bertako kultura eta hizkuntza duen eta habitat konkretu batean dagoen herri baten garapena da. Horrek bereizten gaitu aldamenean ditugun beste bi herrietatik,

haiek bisigodoen, frankoen eta karolingiarren kulturetatik eratorriak baitira. Lurralde hori, habitat hori, baskoien habitata da. (Rekalde, Agirre, 2012)

Hemen, behetik egin dira herria eta estatua, eta, horren ondorioz, neurri handi batean, eutsi egin diegu bertako ohiturei, sinesmenei, eta abarri. Horrek bestelako joera ematen dizu barneko eta naturarekiko harremanetan, eta abar. Horren isla dira foruak, laneko kultura, eta abar: hori guztia mendez mende garatu da, beste herrialdeen ondoan prozesu desberdina da. (Rekalde, Agirre, 2012)

Euskal Herriko etorkizun orekatu eta kohesionatua diseinatzerako orduan, ordea, lurraldearen antolamendua ezinbestekoa da. Euskal Herriko barne egituraketa eta kohesio orekatuak bide-sare orekatua eskatzen du; gure herriko txoko guztiek behar bezalako komunikazio bideak behar dituzte eta baldintza hori ezinbestekoa da lurraldearen oreka lortzeko. Jakina denez, behar bezalako komunikazio-bideak izateak bakarrik ez du eskualdearen etorkizuna bermatzen, baina oinarriak jartzen ditu ekintza sozio-ekonomiko osagarrietarako. (Hitzarmen Nazionala, 1998)

Gainera, lurraldea, herria eta gobernuarekin batera, estatua eratzeke ezinbesteko elementua da. Hala ere, historian zehar lurralde batzuk euren eremua handitu nahian beste batzuk konkistatu zituzten biolentziaz. (Gezala, 2015)

Euskal Herriko biztanleriaren zati baten ustetan, Euskal Herria herri konkistatua da. Hori da, Gezalak (2015) ere dioena. "Lurraldea lapurtu egin digute, lurraldea puskatu egin dute" hitzekin definitzen du berak euskal lurraldearen egitura. Zatidura honekin, mugak kontrolatzeko erraztasuna lortu eta gure herrian kolonizazioa egin digutela dio Gezalak (2015).

Herri baten egituraketa ez da herri horrentzako nazioarteko definizioa; aitzitik, herri, eskualde eta herrialdeen arteko harremanen konponbide eta definizioan oinarritu behar da. Gaurko eskumen markoak Lurralde Antolamenduaren politika eragozten du, hiri, ekonomia, gizarte, kultura, ingurugiro eta erakundeen dimentsio-aniztasunaren aldetik. (Hitzarmen Nazionala, 1998)

Gure lurraldearen antolamendu eta defentsari dagokionez, Euskal Herriaren nazio eta gizarte eraikuntzarako, ezinbestekoa da burujabetasunean oinarritutako eskumen eta ahalmenak lortzea. (Hitzarmen Nazionala, 1998)

Gure lurraldea bi estaturen administraziopean dago. Euskal Herrian dauden legeak ez dira euskal gobernu propio batek ezarritakoak; Frantzia eta Espainiak jarritakoak baizik. (Gezala, 2015)

3.2.1 Euskal estatu eza

Euskal Estatuaren aldeko mugimenduak aginte burujabearen beharra aldarrikatzen du. Hartara, independentzia zertarako errebindikaten den argitzea izan du askotan lehen helburu. Independentzia “zergatik” behar den eta “nola” lor daitekeen erantzutean erantzunaren muina esan gabe doa: nahi dugulako (borondatea) eta ahal dugulako (tresna politiko eta juridikoak), izan garelako (nafar estatua) eta euskal herritarrak hobeto biziko garelako gure herrian, abertzale izan edo ez. Beste argudio guztiak atzetik datoz. (Zubiaga, 2012)

Ikuspegi sozioekonomiko edota kulturaletik, lurralde-antolaketari begira edo herritartasunari so eginez, herri orok burujabetasuna hobea du mendekotasuna baino. Alabaina, independentziaren balizko onurak eztabaidan egon dira beti. Benitok dioen bezala: *Nork ez du nahi bere etxean agintzea?*

Estatua jada baduten herriek, noski, beste herrien independentziaren kalteak eta arriskuak gogoratzen dituzte beti. Dena den, askatasuna nahi duen komunitate politiko batek ez du inoiz esango egoerarik egokiena azpiratua egotea dela. Banakoaren ikuspegitik, berriz, askea, burujabea izateko modua, egongo da zalantzan: euskal herritar gisa burujabea Euskal Estatuan, ala espainiar edota frantziar herritar bezala, oraingo estatuen barnean. Independentzia txarra dela ezin du inork esan, independentzia norentzat izango den ona edo txarra ebatzea baita kontua.

Euskal Herriak, dena delakoa izanda ere ideologia, onurak besterik ez ditu izango Euskal Herri independente batean Zubiagaran ustez (2012). Euskal herriak,

askatasuna salbu, ez du ezer galdu Espainian edota Frantzian. Esateko beharrik balego, hortaz, Euskal Estatuak, askatasunaren adierazpena den neurrian, helburu desiragarri, zilegi eta egingarria izan daiteke. (Zubiaga, 2012)

Zalok (2006) dioen bezala, Euskal Herria, Baskonia, lurraldetasunaren aldetik eta kontzeptualki, euskaldunen herria da, historia, kultura, hizkuntza eta identitateari dagokionez. Hala ere, euskal estatuaren bidean, nazioak estatua behar du. Espainiako estatuak espainiar nazio bakarra nahi eta behar du, baina ezin du lortu; euskal nazioak estatua behar eta nahi du, baina ezin eskuratu dabil. Horregatik, estatu-erakuntza ez da inoiz amaitzen, prozesu etengabea da: inoiz ez da estatua, kontzeptu gisa, ixten, biribiltzen, estatu totalitarioaren ameskerian ez bada. (Ipar Hegoa Fundazioa, 2012)

Nazio-estatuaren osaketa historikoa liberalismoak behar zuen merkatu bateratuaren mesedean burutu zen. Orain, zuzenbidezko estatu sozialaren krisigarai honetan, estatuaren eta nazioaren arteko loturak eduki berriak hartu ditu. Izan ere, komunitate nazionalak ahalbidetzen duen elkartasuna, eta estatu sozialak ziurtatu beharko lukeen baliabideen banaketa orekatua erabat kateatuta daude. Miller-ek (1997) ongi azaltzen duen moduan ongizate-estatuak nazioa komenigarria du. Nazio txiki eta kudeagarri bat, hain zuzen.

Zubiagaren (2012) ustez, estaturik gabeko nazioak, kultura partikular gisa zaintzea ongi legoke, nahiz eta haien errebindikazio politikoak (soberania eta estatua) zentzugabeak liratekeen egungo mundu globalizatuan. Iritzi horren arabera, jada nazio-estatu legitimoen zerrenda zabaltzea komenigarria ez denez, nazio-erakuntza edo naziogintzako saiakera berriak arlo pribatura eraman beharko lirateke: proiektio politiko sakonik gabeko komunitate partikularren eremura. Multikulturalismo liberalak onartu dezakeen eremura, alegia. Horrela, jadanik indarrean dauden estatuak, errealitate multikultural kudeatzaile omen neutralak bilakatuko lirateke, «diferentzien» dialogorako eremu omen neutrala. Estatu berriak sortzeko asmoa, aldiz, hutsala bezain arriskutsua.

Soberania eta haren gorputza, estatua, sare gisa definitu daitezkeela onartuta ere, sare horiek ez dira inoiz neutralak. Sare horietan gune boteretsuak eta ahulak

daude. Estatu-egituraren eta prozesu edo ekintza politikoaren arteko elkarreraginezko jarduera horretan jokoan dagoena, azken finean, boterea baita. jendea mugiarazten duen boterea, errealitatea aldarazten duen boterea.

Clegg-en (Bauman, 1987) ekarpena oso baliagarria da botere, egitura eta egintzaren arteko lotura teoriko hau ulertzeko. Hobbes eta Machiavelli-ren artean dagoen des- berdintasun sakona ekartzen digu gogora: Hobbes-en boterearen eredia, egintza absolutuan hezurramitzen da. Kausalitate mekaniko eta linealean kokatzen da boterearen eragina. Modernitatearen botere-paradigma izango litzateke Hobbes- ena: boterea besteen boterearen ukazioa bezala. Ustez kontrako ikuspegi batetik, kasu honetan, egitura absolutizatu egiten delako, Marx-en eredia ere paradigma moderno horretan kokatu beharko genuke. Estatuaren kontzeptu ezagunena hor zehaztu da, eta hori izango litzateke, izatekotan, krisian dagoena.

Clegg-ek (Bauman, 1987) dioen bezala:

“Boterea ez da adierazten subjektuen nahien bitartez [...] edota egituren beharrezkotasuna dela medio. Aitzitik, boterea ulertzeko modurik egokiena eragileen antolaketa konplexuak biltzen dituzten botere-joko konplexuak aztertzea da. Zirkuitu konplexuetan burutzen diren aginte eta erresistentzia-jokoak. Arau unibertsalen arabera jokutzen direnak baina gunean guneko eta unean uneko inguruabarrak baimentzen dituen jokaldietan taxutzen den botere-jokoaz ari gara.”

lido beretik, botere-zirkuitu horretan nodo edo sare-gune zehatzak bereiz daitezke. Hortaz, errealismo kritikoak estatuari buruz duen definizioa ere izaera estrategiko/harremanezko horren arabera izango da. Egiturazko geruza anitzez osatutako ingurune estrategiko finkatua, eragileen estrategien topagune zehatza baina, era berean, aldakorra baita estatua.

Honen harira, B. Jessop-ek (1990) hau dio estatuaren inguruan:

“Estatua eremu estrategiko gisa ulertu behar da, estrategia politikoen kristalizatze gisa, estrategia politiko mota batzuei eta ez besteei egiturazko pribilegioak ematen dizkien forma politiko zehatza.”

Espainiako estatuak, botere-harreman jakinen kristalizazio gisa, balio, kultura eta jarduera batzuk bultzatu eta besteak zaildu egiten ditu. Euskal Estatuak ere beste batzuk ahalbidetu edo oztopatuko lituzkeen bezala. Horixe izango litzateke Euskal Estatuaren esanahia, euskal independentziarena: Euskal Herriak une honetan garrantzizkoak jotzen dituen balio eta sinesmenak (euskara, edo justizia soziala, adibidez) defendatzeko tresna egokiena dela estatu propioa.

Ilido beretik doa, esaterako, Rubert de Ventós (1994) filosofoaren iritzia:

“Salbuespenak salbuespen, hobe da estatu minimoa izatea autonomia maximoa baino. Estatua da soberania duen antolaketa politiko bakarra, eta horrek abantaila kualitatiboa ematen dio, oraindik ere, estatu-antolakuntza hartzen duen herriari”

Hutsaltasunaren argudio honen arabera, estatuak eskaintzen dituen tresnak euskal nazioa (euskaran errotutakoa) sendotzeko erabili nahiko balira, tresna hutsalak edota onartezinak lirateke euskal herriaren aniztasun identitarioa zaintzeko konpromisoa balego. Kultura demokratiko/liberalean ametiesina baita estatua akulturazio-tresna gisa erabiltzea, XIX. mendean egin bezala. (Zubiaga, 2012)

Argudio honek erantzun erraza du Zubiagaren (2012) ustez. Hasteko eta behin, ezin leporatu dakioko XXI. mendeko balizko estatu bati, egungo estatuak beren eraikuntzarako erabilitako tresna bortitzen erabilera hipotetikoak. Izan ere, egungo estatua ez da XIX. mendekoa, mundu garaikidean ezagutzen ditugun soberaniaren definizio berritzaileak ere Bodino-renak ez diren moduan. Horregatik, argi dago kultur batasuna ezartzeko tramankulua baino gehiago, kultura-aniztasuna egokiro kudeatzeko tresna izango dela Euskal Estatu garaikidea.

3.2.2 Lurraldetasuna eta euskara

Estatuak nazionalizatzen du herria: haren hizkuntza babesten du, eta ohiturak, merkaturak eta ekonomia bat ematen dizkio, oinarri fisikoa eta materiala ematen dio, antolakuntza. Hamar mendean Nafarroak antolatu du gure herria. Horren erakusgarri da Nafarroako Estaturik izan ez duten euskal lurraldeetan euskara desagertzea, Aragoiko edo Akitaniako kasuetan bezala. Lur horietan botere politikoa galdu zen, eta euskara ez zen babestu. (Agirre, Rekalde, 2012)

Nazioaren ezaugarri nagusietako bat hizkuntza den harren, ez da nagusia. Hala ere, Euskal Herria euskararen herria da eta bere estatua Nafar Errepublika. (Beñi Agirre, d.g).

Beñi Agirre (d.g) euskara irakaslearen hitzetan:

“Euskara herri honen izaera naturala da”. Egungo banaketa administratibo artifizialak gora eta behera, euskara hizkuntza komuna izateak baieztatzen du nazio bakarreko herritarra garela” (Agirre ,d.g)

3.3 Kultur Ondarea Euskal Herritarren Identitate

Aurreko belaunaldiengandik oinordetzan hartutako eta herriari nortasuna ematen dioten ondasunen multzo bezala ezagutzen dugu kultura (Bizkaiko Foru ALdundia, 2009) . Hortaz, kultura bera, kultura ondare bezala ere definitu daiteke, banakako nahiz kolektibitate bateko oroimenean txertatzen delarik (Fontal, 2003).

Kultura ondareak herri baten kultura ondarea kontatzen du. Kolektibitate baten atzean dagoen iragana. Ondarearen esanahia ez da laburtzen objektuak eta eraikuntzak datatzea soilik, baizik eta gizakiak historian zehar izandako bizipenak neurri batean berreskuratzeko elementua ere bada (Ramirez de Okariz, 2013).

“Euskal kultur ondarea da Euskal Herriaren nortasun adierazgarriarik nagusia eta herri honek mundu osoko kulturari kondairan zehar ematen

dionaren erakusgarririk garratzitsuena". (Dekretua, 7/1990 eta Arrieta, 2008).

"Kultur Ondarea"-ren lege honek euskal lurraldeak beste lurraldeekiko duen singularidade nagusietako bat garbi azaltzen du. Izan ere, lurralde hau definitzen duena bertako ondarea da, beste estatu zapaltzaileengandik bereizten duena.

Ondarea gu geu definitzeko baliabidea da. Ortegak (2001) dioten moduan, ondareak identitatea eraikitzeko balio du, baina inorena baztertu gabe eta ondokoarenarekin enpatizatuz, hain zuzen ere. Ramirez de Okariz (2013) bat dator identitate eta ondarearen arteko harremanarekin. Identitate eta ondare desberdinen arteko harremanek dakar besteena errespetatzea bakoitzarena bezala.

Fernandez (2011) ondarea, kolektibidade edota komunitate kulturalak identitate kultural propioa adierazten duela dio. Honela, norbanakoaren identitatea erabat lotuta dago ondare kolektiboarekin zein kulturalarekin. Izan ere, Ramirez de Okarizek (2013) definitzen duen bezala, alde batetik, kultura ondarea identitate askoren sintesia dela dio eta bestetik, gutako bakoitzak dugun ondarearekin bat eginez osatzen dugu denok gizarteriaren ondarea.

Le Goff-ek (1998) ere argi du bien arteko harremana dagoela esaten denean. Izan ere, biek lituzkete motibazio historiko komunak. Batetik, berrezagutzeko beharra dago jatorri komuna defendatzeko, eta bestetik, historia, ohitura, praktika kultural, politiko eta eguneroko espazio komun bat definitzeko, mantentzeko eta baieztatzeko.

Ondarea da, beraz, identitatearen adierazpenik jatorrena. Horrela, gizabanako bakoitzak osatzen duen ondaretik hasita, sozialetik igaro (familia, eskola, ...) eta kulturalerainoko tartean (herria, lurraldea, gizarteria...) identitatea osatzen duten ondare batzuk daude eta hauek horiek definitzen dituzte gizabanako horren errealitatea. Modu honetan, ondare desberdinek ondare kultural orokor bat osatzen dute lurralde bateko elementu identifikatzaile gisa bihurtzen dena (Ramirez de Okariz, 2013).

Euskal kultur ondareak bizi iraun du mende askoan. Inguruko baldintzen arabera egokitzen eta berritzen jakin duelako. Dena dela, egungo globalizazio prozesuak ez die mesederik egiten kultura gutxituei edo gutxiengoen kulturei; beraz, euskal kulturak denbora luzean iraun dezan, erronka honi aurre egin behar diogu: euskal kultura transmititzea, egokitzea eta biziberritzea bermatuko duten bitartekoak lortzea (Bilbao, Erriondo, Garagorri, Legarreta, d.g).

3.4 Identitatea eta euskal nortasuna

Trasmisio eta biziberritze horretan, identitateak ezinbesteko garrantzia dauka. Izan ere, dugun ondareaz jabetuz, bakoitzak erraztu genezake hiri arduratsu baten identitate eraketa (pertsonala, soziala eta kulturala), inguruaren nahiz iraganaren kontserbazioan oinarritutakoa (Ramirez de Okariz, 2013).

3.4.1 Identitatea nortasun indibidual eta kolektibo gisa

Honen harira, hainbat dira identitateari ematen zaizkion definizioak. Castells-ek (2000) esaterako, zentzuaren eta esperientzia desberdinen iturri gisa ikusten du identitate kontzeptua. Ez da izenik gabeko jenderik ezagutzen, ez eta ni eta inoren edo gu eta euren arteko ezberdintasuna markatzen ez duten hizkuntzarik edo kulturarik ere. Horrexegatik, pertsonaren nortasunean edo identitatearen eraikuntza inguru soziokulturalak eta hizkuntzak baldintzatzen du.

Azurmendik, Larrañagak eta Apalategik (2008) identitatea prozesu psikosozialarekin harremanen dute. Identitatea norbanakoaren portaeraren aurrekari nagusia da eta gizabanakoen arteko harremanak adierazten ditu.

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (2004) modu honetan laburtzen du identitatearen esanahia:

[...] "Identitatea ez da ezaugarri jakin batzuek historian zehar errepikatzea, baizik eta oinarrian dagoen populazio baten, gutxi edo gehiago gorde diren kultur ezaugarriek osatutako muin baten, memoria

historiko baten eta etengabe aldatuz doan gizarte dinamika baten inguruan belaunaldiei jarraitasuneko sentimendua ematen dien emaitza." [...]

Komunitate baten historia berreirakitzeke balio ezinbestekoa du identitateak. Garena ez da ekintza edo gertaera handien ondorioa, baizik eta kolektibo baten emaitza. Hau da, egindako aktibitate eta lana, izandako giza harremana. Gure oinordetzetatik jasotako ondarea, gure oroimenaren zatia da. Eta, identitatea kultura ondare eta "gu" bezala adierazteko eta definitzeko baliabide bihurtzen da (Ramirez de Okariz, 2013).

3.4.2 Askotariko identitateak

Ramirez de Okarizek (2013) ere, indentitatea gizabanakoak era indibidualean eta kolektiboan bere burua onartzen duen erreferente multzo bat bezala ikusten du, pertsonaren baitan bi identitate mota garatzen direla azalduz. Batetik, gizabanakoarena, alde afektiboarekin eta ingurune hurbilarekin harremanak egitean lortzen dena. Eta, bestetik, identitate kolektiboa, hurbilenekoetatik gainera, balio zabalago eta unibertsalagoak landu eta lortzen dituen.

Azurmendik, Larrañagak eta Apalategik (2008), berriz, mailetan sailkatzen dute. Ramirez de Okarizek bezala, identitate pertsonala eta kolektiboaz aparte, hirugarren bat sailkatzen du kulturala bezala izendatzen dutena.

Bat dator Ezkurdia (2008) sailkapen honekin. Identitatea izaera indibiduala, soziala eta kulturala duela dio, izaki biologiko materialen ekintzeta oinarritzen delako. Gehituz, oraingoa (unean-uneko egoerak markatzen du) eta historikoa (lehenak baldintzatu eta gerora zuzentzen da) ere dela dio.

3.5 Hezkuntza identitatearen oinarri

Hezkuntza da identitatea osatzeko dugun tresna nagusia. Honen beharra dugu norberaren nortasuna osatu eta transmititu ahal izateko. Izan ere, hezkuntza

arduraten da lurralde bateko ondare eta kultura transmititzeaz. Modu honetan lortzen da identitate guzti horiek transmititzea, generazioz generazio.

“Hezkuntzaren betekizun garrantzitsuenetariko bat, zalantzarik gabe, gizarte batek bere irakasleek ikasi beharrekotzat jotzen dituen jakiteak transmititzea da, eta oso bereziki, kultur ondare propioa, herri baten dinamika historikoa... Hau dela eta, eskolaren betekizuna izango da Euskal kulturaren heztea, ikuspegi dinamiko ireki eta integratzaile batetik ulertuta. (Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila, 1992)”

3.5.1 Curriculum

Curriculumak identitatearen eraikuntza horretan leku garrantzitsua du, hezkuntzak honen bitartez transmitituko baititu aurretik aipatutako baloreak (ondarea, identitatea,...). Ramirez de Okarizek (2013) hau baieztatzen du, ondare eta identitatearen kudeaketarako curriculumak beharrezkoa dela esanez, baita gizabanakoa nahiz kolektiboa den identitate oro garatzeko ezinbesteko baliabidea dela ere.

Derrigorrezko eskolaldirako Euskal kurrikulumean (2005: 11) jasotzen den bezala, curriculumaren helburua pertsona gizabanako eta gizartekide gisa garatzea izango da, belaunaldi berriak gizartean integratu, berritu eta guztien artean proiektu komun bat eraikitzea.

Modu honetan, curriculumaren edukiek zuzeneko eragina izango dute identitatearen eraikuntzan, baita balore kulturalak eraikitzerako garaian, eta, maila pertsonalean ez ezik, maila sozialean ere eraikitzeaz arduratuko da. (Ezkurdia, 2008)

3.5.2 Euskal identitatea

Norbanako bakoitzak jasoko duen hezkuntza ez da inoiz neutrala izango. Ezkurdiak (2008) argi dauka transmitituko den ezagutza neutrala ez dela

esaterako garaian. Norbanakoak izango duen ezagutza, talde hegemoniko eta ez hegemonikoen arteko fruitua baita.

Hezkuntza sistema curriculumaz baliatzen da bere estatu-nazio izaerarekiko ondo atxikitzen den gizarte ikuspegi sozial, ekonomiko eta kulturala transmititzeko. Hezkuntza, beraz, tresna estrategikoa bihurtzen da edozein herrialderentzat. Batetik, pertsonen subjektibitatea eraikitzen duelako eta bestetik, gizarte egitura mantendu eta eraldatzeko pieza klabea baita.

Modu honetan, izaera politikoa hartzen du hezkuntzak estatuaren eskuetan. Estatuak nazioaren nortasuna zabaltzeko eta berarekiko atxikimendua ezartzeko tresna bezala erabiltzen dute. Beraz, curriculumak boteregune bezala ulertu daiteke, ideologia zein kultura hegemonikoen erreprodukzioa bideratzen duen kontzientzia baliabide gisa. Intentzioa duen eta helburu jakin batzuk lortzeko diseinatutako erreminta, hain zuzen ere. (Ramirez de Okariz, 2013)

Da Silvak (2011) bat egiten du curriculumaren neutraltasun ezaz hitz egiten denean. Berarentzat curriculumak ez du benetako errealitatearen islada egiten, baizik eta eragile desberdinek egindako interpretazioa zabaltzeko balio du. Era honetan, Ramirez de Okarizek (2013) dio curriculumak izate prozesuak moldatzen dituela, ikasleari zein ezagutzan izan behar duen zehazten dioelako. Ondorioz, identitatea osatzen da, norbanakoak bizi duen egoera soziokulturala eta horretan ezarrita dagoen sistemaren arabera.

Estatu nazioek, beraz, kulturaren eta identitatearen transmisioa gauzatu ahal izateko curriculum hegemonikoak erabiltzen dituzte. Honela, neurri handi batean curriculum ofizial hauetatik beste errealitate soziokulturalekin lotutako edukiak kanpo geratzen dira. (Ezkurdia, 2004).

Euskal lurraldearen kasuan, aurreko hori gertatuko litzateke. 2005an, Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola eta Sortzen Ikasbatuaz elkarrekin "Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumak" izeneko dokumentua sortu zuten. Honetan jasotzen dena zera da:

“Euskal kultura espezifikokoaren transmisioa eta Europako eta mundu osoko ondareari egin beharreko ekarpenaren bermea lortzeko planteamenduaz gain, European integratutako euskal gizarte batean eta munduarekin elkarreaginean bizi ahal izateko beharrezkoak diren konpetentziak ere sartu behar dira” (Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculuma, 2005:4)”

Hala ere, Euskal Herriaren banaketa administratiboak eragindako ondorioak tokian tokiko curriculum ofizialetan nabarmentzen dela dio Ramirez De Okarizek (2013), zenbait kasuetan Euskal kultura transmititzeari uko egiteraino.

Hezkuntza sistema, estatu baten muina da. Ablanedok (2015) dioen moduan, honen bitartez kulturalizatzen dira atzetik datozen belaunaldiak, ondoren, etorkizuneko egoera osatuko duten eragileak izango direnak.

Hezkuntza eremuari erreparatu ezker, euskal lurraldearen egoera berezia da. Sortzen Ikasbatuaz (2013) elkarteak ondo azaltzen duen bezala, Espainiar zein Frantziar estatuak ahalegin bereziak egin izan dituzte euren hezkuntza sistemen bitartez homogeneizazioa eta kontrola ezartzeko. 1857ko Moyano Legea Espainian eta 1833ko Guizot Legea Frantzian dira honen erakusgarri. Lege horiekin hasi eta gaur egun arte lege eta dekretu zaparrada zerrenda topa daitezke: LOGSE, LOE, Testu Liburuaren dekretua, Bologna Prozesua,... Zerrenda amaigabea helburua bakarrarekin: estatu eredu kapitalista, akritiko eta patriarkala denboran mantentzea.

Euskal Herrian hiru aukera daude guraso batek bere seme-alabak zein hezkuntza jasoko duen erabakitzeke garaian. Batetik, euskal eskola publikoa, bestetik, eskola alternatiboak deritzonak, eta, azkenik, Ikastolak. Koldo Tellituk (2014) azaltzen duen moduan, herri mugimendutik sortutako hezkuntza eredu propioa .

Odriozolak (2015) deskribatzen duen moduan, ideologia espainolak eta frantsesak eragindako hizkuntza eta kultura ordezkapenaren ondorioz, estatu hauek ezarritako erreferentziak dira egun euskal lurraldean daudenak.

Lege eta dekretu ezberdinen bidez, berezko izaera suntsitu eta homogeneousazio prozesua burura eramateko apustu sendoa egin izan dute estatu biak, baina, Euskal Herriak berezko hizkuntza, kultura eta ohiturak biziraun dezaten alternatibak sortzen jakin izan du. Horren erakusgarri dira egin diren egitasmo guztiak, hau da, Euskal Herriko Hezkuntza Sistema propio baten aldeko ekimenak. Besteak beste, Euskal Curriculum sortzeko prozesua, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak, aisialdi eremuan gertatutako zabalkundea, hezkuntza ez arautuan hainbat eragileren bidez gorpuztutako ekimenak, eta, nola ez, Ikastolen sorrera, garapena eta hedatzea.

Hezkuntza egitura administratiboak, aldiz, ez dira ari garai berrietara egokitzen. Euskal Herriak ez du hezkuntza sistema propiorik, herri bezala ez baitu berau arautzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eskumenik. Ondorioz, bermatzeke daude alor asko: ikasle guztien euskalduntzea, Euskal Curriculum, euskal unibertsitatea... (Sortzen-Ikasbatuaz Elkartea, 2013).

Hau curriculumera eraman ezker, euskal lurraldeko egoera bestelakoa da; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, EHIK, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, EAEko Kristau Ikastetxeen Federazioa Sortzen-Ikasbatuaz eta Eskola Publikoen Elkartek (2008) jasotzen dutenaren arabera :

"Euskal Curriculum osoan, euskal curriculum ez espezifikoa (unibertsala) eta espezifikoa jasotzen dira. Unibertsala den kultur ondarea, burututa dagoen Euskal Curriculum osoaren proposamenean eta Espainiako (EAE3 eta Nafarroa) eta Frantziako curriculum ofizialetan ere jasotzen da eta ziurtatuta dago. Berriazkoa den Euskal kultur ondarea, aldiz, ez da jasotzen Espainiako eta Frantziako curriculum ofizialetan, oso era mugatuan Nafarroako curriculumean eta era osatuagoan, baina lurralde batera mugatuz, EAEko curriculumean.."

Testuliburuak egoera honen isla garbia dira. Perez eta Bilbao (2005) Ezkurdiak eginiko ikerlanetaz baliatzen dira curriculumean irakasten diren lurraldeak eta

historiak nekez islatzen dutela Euskal Herri soziokulturalaren errealitatea (Euskal Herria aipatzen denotan) ondorioztatzeko.

Gainera, Perezek eta Bilbaok (2005) elkar-lanean buruturiko ikerketan lortutako datuek bestelako hau adierazten dute:

- Euskal Herrian, hiru hizkuntzatan, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz ekoizten diren eskolarako testuliburuak ez direla molde berekoak.

- Frantsesez direnak zehatzak dira, Estatuaren alde beti, eta ez dute Euskal Herriaren berri ematen.

- Gaztelaniazkoak, kanpoko proiektuei erantzunez, Euskal Herria soziokulturala saihestu egiten dute.

- Euskaraz direnen artean, badira euskaraz sortuak eta badira itzuliak ere, hizkuntza itzultzen zaienak, adierazlea euskaraz, baina adierazia erdalduna.

Beraz, Odriozolak (2015) argi dauka zentzu horretan. Euskal Herriaren egoera bi estatuek egindako okupazio eta konkistaren ondorioa zuzena da eta hori euskararen mapa historikoan ikusten da. Minorizazio prozesua pairatu duen herria da Euskal Herria, nazio identitatea osatzen duten sistema eta sistema horretako osagaiak diren guztiak murriztu eta iraungiarazi dutena.

3.IKERKETA APLIKATUA, SAKONTZE APLIKATUA

3.1 METODOLOGIA

Elkarrekin Lan Zuberoan proiektuari buruzko ikerketa egiterako orduan, hainbat ataletan banatu da lana: alde batetik, marko teoriokoa izango litzatekeena, eta bestetik, udalekuetako bizipenak barneratuko dituen atala. Hori horrela, eta Elkarrekin Lan Zuberoan proiektua sortu eta egitearen zergaitia aztertzeke nahiarekin, hainbat adituri egin zaio elkarrizketa.

Marko teorikoa

Atal honen helburua, Euskal Herriko egoera aztertzea izan da helburua. Lurraldetasunetik hezkuntza bitarteko gaiak landuko dira bertan. Horretarako, hauek izan dira elkarrizketatuko adituak:

- Larraitz Ariznabarreta (Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria)
- Ane Ablanedo (Baionako Unibertsitateko irakasle eta ikerlaria)
- Joxe Manuel Odriozola (Euskal idazle eta ikerlaria)
- Paskal Indo (Seaskako Presidentea)
- Xan Aire (Seaskako Euskaraz bizi egitasmoaren ordezkaria)
- Mertxe Aizpurua (Udalbiltzako Lehendakaria)
- Nagore Amondarain (Ikastolen Elkarteko Asialdi taldeko ordezkaria eta begiralea)
- Anaiz Olzomendi (Uda-Leku asialdi elkarteko ordezkaria eta begiralea)

Aipatu bezala, hainbat dira atal honetan jorratutako gaiak: lurraldetasuna, euskal estatu eza, egungo egoera politikoa Euskal Herrian, euskara, euskal identitatea eta hezkuntza, zehazki. Hau kontuan izanda eta aditu bakoitzaren perfila aztertuta, hainbat multzotan banatu dira galderak.

Larraitz Ariznabarreta eta Joxe Manuel Odriozola ikerlariak izan dira lurraldetasunaren gaia landu dutenak. Horretarako, hauek izan dira planteatutako galderak:

- Zein egoeratan aurkitzen da gaur egun Euskal Herria: lurraldearen kohesioari begira eta / euskal identitatea?
- Orokorrean euskal gizartearen sentsibilitatea edo pertzepzioaren zein balorazio egiten duzue? Kezkatuta dago euskal gizartea?
- Noruntz goaz? Zein da euskal lurralde eta nortasunaren etorkizuna? Aurrera goaz? Zer egin dezakegu gure identitateak aurrera egin dezan? Estrategia eraginkorrik?

- Zeintzuk dira euskarak lurraldetasunaren mugetan sortzen dituen abantailak?
- Euskal Estatu ezak zein eragin dauka euskal lurraldetasuna eraikitzeko orduan?
- Beharrezkoak al dira Elkarrekin Lan Zuberoan bezalako proiektuak?
- Jasotzen al dira laguntza nahikorik mota hauetako proiektuak aurrera eramateko?

Hezkuntza alorra lantzen, ordea, Seaskako lehendakaria den Paskal Indo aritu da. Hau jakinda, hauek izan dira landutako galderak:

- Zein etorkizun dauka euskal hezkuntzak Euskal Herrian?
- Ikastolen lana beharrezkoa da euskal kurrikuluma bermatzerako orduan. Nola ikusten duzue egun egoera? Zein muga daude?
- Euskal curriculumak oinarri identitarioa sortzerako unean garrantzia baduela uste duzu? Zeinbateraino garrantzia du horrek? Garrantzia berezia eman beharko genioke curriculumari?
- Zeintzuk dira euskarak lurraldetasunaren mugetan sortzen dituen abantailak?
- Jasotzen al dira laguntza nahikorik proiektu hau bezalako aurrera eramateko?

Udalbiltzako lehendakaria den Mertxe Aizpurua eta udalekuetako ordezkariak diren Anaiz Olzomendi eta Nagore Amondarainek proiektu honen zergaitiaren eta antolamenduaren inguruan aritu dira. Mertxek gainera, lurraldetasunaz ere hitz egin du.

Hona hemen udalbiltzako lehendakariari egindako galderak:

- Azaldu proiektu honen nondik norakoa.
- Zein da zehazki zuen papela proiektu honetan?
- Zer dela eta udaleku hauen sorrera? Zerk eraman du hori egitera?
- Beharrezkoak ikusten dituzue horrelako ekimenak?
- Erakundeak prest azaltzen al dira horrelako ekintzetan parte hartzeko?
- Zein da egungo egoeraren gaineko zuen balorazioa? Eta etorkizuneko erronkak edo mehatxuak?
- Lurralde kohesioa nola dago? Euskal gizarteak kezka bizi du gaia?

Eta hauek dira Nagore eta Anaizi egindako galderak:

- Zergatik Elkarrekin Zuberoan proiektua? Zerk egiten du berezi udalekua?
- Nork osatzen duzue Elkarrekin Zuberoan proiektua? Nola dago egituratua proiektua?
- Jasotzen al duzue erakundeen aldetik diru laguntzarik? edo bestelako laguntza eta babesik? Prest azaltzen dira horrelako ekintzetan laguntza emateko?
- Zeintzuk dira zuen ustez proiektu honen puntu ahul eta indartsuenak?
- Beharrezkoak al dira proiektu hau bezalako ekimenak? Zergatik?
- Zein da egungo egoeraren gaineko zuen balorazioa? Eta etorkizuneko erronkak edo mehatxuak?
- Zeintzuk dira euskal lurraldetasunaren mugetan sortzen dituen abantailak?

- Euskara ama hizkuntza bezala izatea harremanak errazten al ditu? Ala euskalkiak oztopo dira?
- Toki desberdinetako begiraleak elkartzen zarete udaleku hauetan. Uste al duzu bakoitzak jasotako formakuntza desberdina haurren arteko harremanak baldintzatzen dituela?
- Aurrera begira zer?

Udalekuetako bizipenak

Elkarrekin Zuberoan dokumentala udalekuen inguruko lana den heinean, beharrezkoa da bertan egon eta proiektuaren parte direnen bizipenak jasotzea. Horretarako, udalekuetako haur eta gurasoei elkarrizketa egitea beharrezkoa da proiektu honetan. Hala ere, ezin dira alde batean utzi udaleku hauetako begiraleak.

Hauek izan dira elkarrizketatutako haurrak:

- Haizea Olano, Gernika
- Malen Garmendia, Gernika
- Ihart Basabe, Gernika
- Getari Del Val, Ibarrangelu
- Ainhize Bengoa, Foru
- Oihana Azkarai, Gernika
- Araiz Arruti, Gernika
- Paula Zugaza, Muxika
- Ane Muriel, Errigoiti
- Laia Arriaga, Errigoiti
- Maimuna Mannen, Gernika
- Itziar Bolo, Gernika
- June Garcia, Gernika
- Garazi Arriaga, Gernika
- Izar Larruzea, Arteaga

- Danel Arriola, Ibarrangelu

Hauek dira, berriz, Elkarrekin Zuberoan udalekuetara haien haurrak eraman dituzten guraso elkarrizketatuak:

- Xiomara Gezunaga, Foru
- Esther Plaza, Gernika
- Macarena Lopez, Errigoiti
- Ainhoa Iturriarte, Gernika
- Iñaki Garmendia, Gernika
- Asier Bengoa, Foru

Begiraleen lana oso garrantzitsua da Elkarrekin Lan Zuberoan proiektuaren barruan. Eurak dira udalekuen helburua haurren artean zabaldu eta dinamika hori bideratuko dutenak. Hori horrela, hauek dira elkarrizketatutako begiraleak:

- Nagore Amondarain (Ikastolen Elkarteko Asialdi taldeko ordezkaria eta begiralea)
- Anaiz Olzomendi (Uda-Leku asialdi elkarteko ordezkaria eta begiralea)
- Aitor Altuna (Hego Euskal Herriko Begiralea)
- Koldo Rodriguez (Hego Euskal Herriko Begiralea)
- Maddi Aranburu (Hego Euskal Herriko Begiralea)
- Guilhem Da Costa (Ipar Euskal Herriko Begiralea)

Galderei erreparatuz, hauek dira umeei egindako galderak:

Bestetik, udaleku hauen hautaketaren zergaitia jakite nahiean, hauek dira gurasoiei egindako galderak:

- Zergatik bidali duzu zure haurra udaleku hauetara eta ez Jaurlaritzak antolatzen dituenetara?
- Bete al dira zuk udaleku hauetatik lortu nahi zenitun helburu/espektatibak?

- Uste duzue guraso askok partekatzen dutela helburu edo kezka hau?

Galderen atalari bukaera emateko, hona hemen begiraleei egindako galderen zerrenda:

- Zein eragin dauka haur bakoitzak bere euskalkian hitz egin ezkeru?
- Euskara ama hizkuntza bezala izatea harremanak errazten al ditu?
- Toki desberdinetako begiraleak elkartzen zarete udaleku hauetan. Uste al duzu bakoitzak jasotako formakuntza desberdina izatea haurren arteko harremanak baldintzatzen dituela?

Alde teknikoari dagokionean, hainbat baliabide erabili dira dokumentala egiterako orduan. Dokumentala teknikoki, bi denbora lerro desberdinean grabatu da. Alde batetik errekurtsuak grabatu dira eta bestetik, elkarrizketak.

Errekurtsuak

Errekurtsuen inguruan hitz egiten dugunean, elkarrizketa ez den guztiaz ari gara. Zati honetako baliabide nagusia, 2015eko Martxoaren 26an Maulen egindako bi ikastolen arteko egonaldiaren grabaketa izango da. Bertan, ipar eta hego Euskal Herriko 150 ikasle bertaratu ziren. Proiektuaren dinamika berdina jarraitu arren, hauek ez ziren udalekuak, ikastolen arteko egonaldia baizik.

Hau grabatzeko, bi kamera eta bolantea izan ziren erabilitako baliabideak. Egun horietan etengabeko mugimendua zegoenez, bolantea erabili zen kamararen euskarri bezala. Honekin, estatikotasunetik atera eta dokumentalari freskotasuna emateko asmoarekin.

Beste errekurtsuak, ez dira guk grabatutakoak izango. Udalekuetan bertan hurrek eta begiraleek grabatutako audio, bideo eta argazkiak izango dira.

Honekin, lekua eman nahi diegu udalekuei zuzenean gure lanean. Honek, bizitasuna emango dio lanari.

Elkarrizketak

Elkarrizketak grabatzerako orduan, lehen aipatutako materialez gain, tripodea, ahots-grabagailu profesionala eta pertiga ere erabili dira. Aurreko atalean ahotsa pertigaren bitartez jasotzea beharrezkoa ez zen bitartean, honetan oso beharrezkoa zen elkarrizketatuaren ahotsa jasotzea. Hauek baitira dokumentalaren aria markatuko dutenak.

3.2 EMAITZAK

Dokumental honek badu marko teorikoaren lanketa indartsu bat atzetik, gaiak horrela eskatzen duelako. Gainera, lan honek ez luke pisurik edukiko proiektuan parte hartu dutenen bizipenak jaso gabe. Hori horrela, gaiean adituak diren hainbat erakunde edo enpresetako buru edo ordezkari egin zaie elkarrizketa. Baina baita, guraso, haur eta begiraleei ere.

3.2.1 Lurraldetasuna

“Lurraldetasuna nazio baten eraikuntzan hizkuntzarekin batera aldagai nagusienetako bat da” dio Larraitz Ariznabarretak (2015), Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak. Momentu hauetan, euskal lurraldeasunaren egoera oso ahul dagoela azpimarratzen du aldi berean. Euskal lurraldetasunaren kohesioari buruz hitz egiterakoan, euskal gizarteak hein handi batean lurraldetasunaren imaginarioa galdu egin duela dio Ariznabarretak (2015).

Identidadea funtsezko auzia da edozein estatu edo naziotan. Euskal Herrian, identitatea konplejuetatik eraikitzen dugula dio Ariznabarretak (2015). Edozein nazio edo estatutan kontzeptuak zehaztuta behar dira izan. Euskal kolektiboaren identitate osatu bat auzitan jartze hutsak, euskal gizartearen ahultasuna erakusten du.

“Euskal kolektiboaren indetitate osatu bat auzitan jartzea, historia bat itxi nahi izatea da” (Ariznabarreta, 2015)

Ido berari heltzen dio Ane Ablanedo Baionako Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak (komunikazio pertsonala, 2015):

“Euskal Herria ez dut egoera onean ikusten eta EH definitzen duen gauza guzti horietan ikusten dut gaizki. Berdin dit lurraldetasuna, euskara, identitatea, kultura..herriak dituen ezaugarri guzti horiek gaizki ikusten ditut. Ez da kasualitatea, izan ere, herria likidatu nahi duten bi estatuek estrategia bat dute gu likidatzeko. Buruetan aurrera egiten ari dira, gure kontran, noski. Guk ez dugu nahiko horri aurre egiteko estrategiarik” (Komunikazio pertsonala, 2015)

Ariznabarretak (2015) esan bezala, euskal gizartearen ahulezia azpimarratzen du Ablanedok (2015). “Euskal Herria ez dabil ongi” hitzekin definitzen du Ablanedok (2015) euskal gizartearen eginkizuna askapenaren bidean. Duela 50 urte argiago zituen euskal gizarteak euskal identidearen kontzeptuak: nor ginen, zer pasa zitzaigun, zein zen arazoa edo nor edo zer zen gure etsaia. Hain oinarrizko diren gauzak argi zituen euskal gizarteak. Denborak Aurrera egin ahala, atzera egin du euskal gizarteak euskal identidateari dagokionean. Honi lotutako Ariznabarretaren (2015) hitzak: “Euskal gizartea, lozorro batean bizi da”.

Euskal herritarra lozorro batean bizi da gaur egun. Urte oso gogorrak igarotzetik dator euskal herritarra, beraz ulergarria dela dio Ariznabarretak (2015). Errealitateari aurrez aurre begiratzeko zailtasunak ditu Euskal Herriak, eta hori lozorro horretan egoteagatik dator. Euskal Herria izugarrizko belarrondokoa jasotzen duenean altxatzen da bakarrik. Hori horrela, arazoen edo erasoen aurrean erreakzionatzen duen herria badela badakigu. Baina, arazoa denen ahotan ez dagoen momentuan, herritarra lozorrorra sartzen da berriro. Honela dio Ariznabarretak (2015):

“Zauriari gatza bota behar zaiola uste dut. Baina harrigarria egiten zait nola euskal herritarra altxa egiten den lozorroetik belarrondoko

ikaragarri bat jasotzen duenean. Arazoen aurrean erreakzionatzen dugu, baina hori behin sare sozialetatik kentzen denean lozakura bueltatzen gara berriro” (Komunikazio profesionala, 2015)

Euskal gazteriak badu gauzak ulertzeko kontzientzia nahikoa baina belarrondoko puntualen aurrean altxatzen da bakarrik. Ariznabarretak (2015) belarrondokoen arteko loturak egitea gauzak ulertzeko beharrezkoa dela dio. Ariznabarretaren honi lotuta Ablanedok (2015) euskal gizarteak bizirauteko gogoia baduela dio. Munduan bizirauteko gogorik ez balego, ez litzateke herririk izango. Hala ere, Ablanedok, borondate hori askatasunaren bidean ongi kanalizatzen ari ez dela dio. Euskal gizartearen analisi bat egiterakoan, gizarteak egoera ilusioarekin bizi duela dio.

“Jendeak ez du drama ikusi nahi izaten. Jendeak nahiago du drama ikusi baino, nahiago du ilusioarekin bizi”. (Ariznabarreta, 2015)

Ilusioari heltzea erosoagoa da gizartearentzat. Baina honekin, ez gara bizi dugun egoera larriaz konturatzen. Hori dela eta, ez dira alarmak piztu, ez dira irtenbideak bilatu; ez baikara bizi dugun egoeraz kontziente. (Ablanedo, 2015)

Ilido bera jarraitzen du Joxe Manuel Odriozola (2015) euskal idazleak:

“Euskal gizartea kezkatua egoteko bere kontzientzia edo egoeraren perzepzioa beharko luke eta badakizu, hori asimilazioaren baitan dagoela [...] asimilazio prozesua luzea izan delako, mende askotakoa, beraz, horren ondorioz Euskal Herriak edo euskal nazioak ez du bere buruaren kontzientzia handirik nere ustez”. (Odriozola, 2015)

Herri baten identitatea ez da egun batetik bestera desagertzen. Euskal Herria erresistentzia handiko herria izan da beti. Euskal gizarteak, erreakziorako gaitasun handia dauka. Hala ere, gaitasun horrek ez du bermatzen etorkizuna. Etorkizuna, urteetan iraunarazi digun historia, identitate, hizkuntza edo lurraldetasunari uko ez egiteak dakar. Zaila da, esan bezala, kolektibo bat desagertzea, baina askotan

gizartea lozorro batean bizi da, engainu baten atzean. Iraunarazteko, sasiak astindu eta errealitateari aurrez aurre begiratu behar zaio. (Ariznabarreta, 2015)

Ablanedok (2015) beste modu batean ikusten du euskal identitatearen biziraupena. “Bizirauteko, herriak aske izan behar du”. Independentzia ikusten du Ablanedok euskal identitateari bermea emango dion aukera bakarra. Ariznabarreta ere berdinean dago:

“Euskal identitateari berme eraginkor eta definitiboa emango dion elementua estatua da”. (Ariznabarreta, 2015)

Ablanedok, gainera, egoeraren gaineko ikuspegi ezkorra ageri du:

“Dramatikoa da esatea baina euskarak ez du aurrera egingo independentziarik gabe [...] indarra ez dago independetzia biltzeko bide horretan. Herriak nahi du, baina herriren borondatea kudeatzea eginkizun bezala hartu duten politiko horiek ez dute independentzia lehen helburu bezala ikusten. Ondorioz, euskarak, identidadeak... ez dute etorkizunik inola ere. Euskara hizkuntza ezartzeko gaitasuna duen estatu propio bat behar dugu. Beraz, EH-k estatu bat behar du. Euskal Herriaren egikizuna hori da, bestela heriotza da gelditzen zaigun emaitza bakarra” .
(Ablanedo, 2015)

Joxe Manuel Odriozolak ere, ildo berari heltzen dio:

Euskal gizartea zer da? Espainol eta izate frantsesaren azpizati bat besterik ez. Beraz, Euskal Herriak ez du behar bezain autonomiarik bere kabuz pentsatzeko. Nortasun galera horrek bestearekiko sumisioa eta morrontza ekarri dio. Orduan, nortasunaren politika horretan zerbait egingo badugu daukagun baino gaitasun gehiago eduki beharko genuke. (Odriozola, 2015)

Azken aldian, geroz eta gehiago erabiltzen da “gizarte” kontzeptua eta gutxiago “herri”-arena. Eta hori, berreskuratu egin behar da. Herria definitzen dituen kontzeptuak dira euskara, identitatea...Euskara gure hizkuntza den heinean, gure herria definitzen duen kontzeptua da. Gaur egun, lurraldetasuna arazo da, gure etsaiei komeni zaien diskurtsoan sartu garelako, alegia. Euskal Herriko zazpi probintziak erkidego desberdinetan, estatu menderatzailepean banatuta daudela sinisten dugu naturalki hala sinistarazi egin digutelako. Lurraldetasuna da arazo etsaiaren logika horretan sartzen garen unean eta diskurtsoa zentralidadean ezartzen dugunean. Bestela, gu herri bat gara, lurralde guzti horiek batuko dituen estatu bat behar duena eta euskara gure hizkuntza modun ezarriko duena. (Ablanedo, 2015)

Herri edo nazio bat besteetatik bereizten duen elementu esanguratsuenetako bat garrantzitsuena ez bada, hizkuntza da. “Hizkuntza bat, nazio bat” esaldiarekin azaltzen du Ariznabarretak hizkuntzaren garrantzia herri batean. Euskararik gabe ez dago Euskal Herririk. Benetako nortasuna Euskarak ematen dio euskaldunari. (Ariznabarreta, 2015)

Aurretik, Ablanedok esan bezala, estatu bat beharrezkoa da Euskal Herriak eta euskarak biziraun dezan. Garai batean Nafarroako Erreinua zena egungo abiapuntua izan liteke. Hala ere, estatu horri zilegitasunik ez zaio kendu eta ez diegu zilegitasunik eman kanpotik datozen bi estatu horiei. Beraz, ez dugu zertan estatu bat eraiki behar, badugu. Efektibotasuna eman beharko genioke horri. (Ablanedo, 2015)

Estrategikoki garrantzitsua da jakitea garai batean independenteak izan ginela. Garai batean gobernu propio bat izan genuela, herria bere osotasunean bideratzeko gai izan zena. Hori da lortu behar dena. Euskal estatua hori da. Berez dugun hori aktibatzea. Hori horrela, izan denik ez interpretatzeak ekartzen du dagoen gatazkaren diagnostiko oker bat egitea eta botika ez egoki bat bilatzea. (Ablanedo, 2015)

Horretarako balio du historiak. Jakiteko nor garen. Menderatua, zapalduta, okupatua izan den herri bat, eta gure helburua menderakuntza hori gainetik

kentzea izan beharko luke. Hau da, askatasuna izatea. Ez da aske garela eta aske garelako erabaki behar dugula zer izan. Baizik eta, bagarelako eta okupatuk izan garelako dagokigu aske izatea. Zerri esaten diogu euskal gatazka? Gatazka: okupazio erregimena. Beraz, irtenbidea okupazio hori gainetik kentzea izan behar du. Askatasuna lortzea. Askatasuna berdin independentzia. Ondorioz, independentzia ez da aukera bat, baizik eta bertan demokratikoa den helburu bakarra, zapalkuntza ez baita demokratikoa. (Ablanedo, 2015)

Hori dela eta, estatua lehen beharra da. Eta lehen behar bezala ez duten politiko horiek zeharka esaten ari direna da hemen ez dagoela okupazio egoera bat. Okupazio egoera bat dagoela aitortzen baduzu, automatikoki okupazio erregime horretatik askatzea dakar. Eta, ondorioz, independentzia ez litzateke aukera bat izango, ez baita aukera bat zapalduta jarraitzen izatea. Hori delitua da, eskubide internazionallean errekonozitua. (Ablanedo, 2015)

Herriari babes ideologiko bat eman beharko litzaioke, momentu hauetan ez dagoena. Nor gara, zer gertatzen zaigun, zein arazo eta helburu ditugun. Intuitiboki badugu, baina egun euskal komunikabideetan zabaltzen ari den diskurtsoa honen kontrakoa da eta horrek suposatzen duena ideologikoki jendea babes gabe uztea da eta kolonizazio efektu eta inperialismoari komeni zaion diskurtsoaren efektua gailentzea. Ondorioz, jendea zalantzan jartzen hasi da bere diskurtsoa eta nahigabe erreproduzitzen gure menderatzaile horiei komeni zaiena. Gure buruai galdetzen zer izan behar garen, alegia. Bagara, eta bagarenez dagozkigu eskubide batzuk. Baina orain dirudi ez garela eta erabaki behar dugu zer garen. Ez da erabaki daitekeen gauza bat: bagara eta. (Ablanedo, 2015)

Euskal Estatu ezak eragina dauka nazioa osatzen duten aldagai guztietan. Lurraldetasunean, hizkuntzan, edota egunerokotasuneko aldagaiei eragiten die euskal estatu ezak. Beraz, erantzunik osatuena, euskal estatuaren errebindikazioa izango litzateke. (Ariznabarreta, 2015)

Hauxe dio Joxe Manuel Odriozolak (2015) euskaldun izatearen beharrezkotzaren garrantziaz:

“Euskal Herriaren batasunari begira euskaldun izatearen sentimendu hori beharrezkoa dugu iparra eta hegoa lotu nahi baditugu. Ez dut uste, hain zuzen ere, guk frantsesa ikasi eta haiek espainola ikasiz Euskal Herria sortuko dugunik zenbaitek esaten duen bezala”. (Odriozola, 2015)

Euskal Estatuaren beharra begibistakoa da. Euskararen nazioa berreraikitzeke beharrezkoa da euskal estatua. Izan ere, estatuak nazioaren izaera eta funtzioa kohesionatu eta trinkotzen baititu. Beraz, dialektika hau modu egokian landu eta garatzean dago gakoa. Euskal nazio edo euskararen nazioa, euskaltasunean oinarritutako nazioa beti ere, aldarrikatzea da helburua. (Odriozola, 2015)

Xan Airek (2015), Seaskako Euskaraz Bizi egitasmoko kordinatzaileak, ordea, hauxe dio euskal estatu ezak lurraldetasunean eragiten dituen arazoen aurrean:

“Ez dakit zer den euskal estatu bat. Ez dut sekulan bizi izan hori. Nik ikusten dut aunitz gauza eraikitzen ari garela orain, euskal lurraldetasun hori, euskal kultura hori biziberritzen ari direla, badirela prozesu biziki interesgarriak, geroz eta euskara gehiago egiten ari direnak. Estatua noizbait izatekotan, izanen dela eraiki dugula babes gisa. Hizkuntza baten ofizialtasuna den bezala, baimen gisa bizitzen dugu. Baina ofizialtasuna babes bat dela eta, ofizialtasun den moduan, estatu bat ere hala ikusten dut. Egiten dugun babes gisa”. (Aire, 2015)

3.2.2 Hezkuntza

“Euskal Herriak etorkizunik badu, euskal hezkuntzarekin izan behar da” dio Paxkal Indo (2015) Seaskako zuzendariak. Bestela, ez da Euskal Herririk ere. Hau logikoa da, hezkuntza, gaur egun, gure gizartean da, gizartearen parterik handiena kasik. Orduan, euskal hezkuntza bat nahi baldin badugu, Euskal Herri bat nahi baldin badugu, Euskal hezkuntza bat izan behar da.

“[...] Eta, nonbait, hain logikoa dirudienez ere, iparralean bederen aski urruti gaude oraindik”. (Indo, 2015)

Euskarak garrantzia handia du euskal hezkuntzan, hori horrela, Airek (2015) honako hau dio:

“Beste puntu bat da argi daukagula orain Euskal Herria eleaniztuna izango dela, eta hori kontuan hartuz, gakoa euskarari zein toki bermatuko diogun hezkuntzan ere bai”. (Aire, 2015)

Eta gehiago dio Airek (2015): *“Oso arriskutsua iruditzen zait hezkuntza eskola arautura soilik mugatzea. Beste esparruak aurkitu beharko genituzke. Etxean, aisian edota kulturgintzan izan daiteke. Hezkuntza bat bere osotasunean bermatzeko, alegia”.*

Hezkuntza Indok dioen bezala, ezinbestekoa da. Ablanedok, Indok eta Airek diotena baieztatuz, honako hau dio:

“Gaur egun hezkuntza, beste guztia bezala, gure suntsipena nahi duten bi estatuen menpe dago, euskaraz bada ere. Beraz, heziketak sekulako lana egin dezakeela guregatik argi dago, gure identitatea sustatzen, alegia. Baina argi izan behar dugu hezkuntza Espainia eta Frantziaren menpe dagoela. Berdin ikastoletan, berdin eskoletan. Beraz, nekez egin ahal izango dugu identitate hori susastu. Orain, ez da inon EH-aren alde egiten ari den hezkuntza bat”. (Ablanedo, 2015)

Ariznabarretak ere, oso argi dauka hezkuntza boterea martxan jarri eta bermatzen duen azpi-sistema bat dela. Beraz, elementu guztiek diote, botere bati aurre egiteko hezkuntza sistema alternatibo bat aldarrikatzea ezinbestekoa dela. Hori egin ezean, hezkuntza sistema hori martxan jarri duen botereak irentsiko du.

“Ez naiz Euskal Herriaz bakarrik hari, hezkuntza makinaria bat da bere boterearen iraupena bermatzeko”. (Ariznabarreta, 2015)

Identitate kontuetan, oinarrizko kontua da hezkuntzarena. Espainia eta Frantziako estatuek gauza bera egin dute: eskola sistemaz baliatu beraien identitate

nazionala sozializatzeko. Bide batez, eta aldi berean, beraien kultura, hizkuntza eta historia besteak beste, zabaltzeko ere. Belaunaldi berriak frantseztasun eta espainoltasunean hazten dituzte.

“Euskal kurrukulak baditu hutsuneak alde hortik, nazio kontzientziaren ikuspegi garbi bat. Ez dakit noraino erakusten den gaurko eskola eta ikastoletan. Inpresioa daukat ez dela hori lortzen. Euskararekin batera, beraz, euskal nazioaren problematikaz ohertarazi eta gogoetak egin beharko lirateekela eskoletan uste dut. Beraz, alderdi horretatik hekuntza sistema edo eskola aparatua oinarrizko elementua izan da beste lurraldeen nazio edo estatugintzan. Uste dut gurean ere hala izan beharko lukeela. Hori baliatzen ez badugu, nekez lortuko genituzke euskaltasunaren elementu horiek”. (Odriozola, 2015)

Herri bat nahi izanez gero, hezkuntza bat behar da. Horretarako, kurrikulum propio bat beharrezkoa da. Currikuluma, azken finean, hezkuntza horretako edukia da. Gaurko kurrikuluma, atzokoa eta biharkoa ez da berdina. Etengabeko aldaketan doa. Gar egun ez da irakasten duela hamar urte irakasten zen bezala. Eta, azken finean kurrikuluma oso tresna garrantzitsua da herriarentzat. Hala ere, helburua, dauzkagun hiru errealitate politiko horietan ahalik eta hurbilen egotea da gure nortasun kolektiboa eraikitzeko. (Indo, 2015)

Azken finean, currikulumarena lotuta dago hasieran esaten nuenari. Nahi baldin badugu herri bat, hezkuntza bat behar dugu. Eta hezkuntza hori nola nahi dugun egin, curricula da horren parte bat, besterik ez da. Azken finean curricula da zer ematen dugun hezkuntza horretan. Zein mamia ematen diogun gure hizkuntzari. Gainera, gaur egunematen duguna edo orain dela hamar urte ematen zena edo hemendik hogeit urtera eman genezakeena ez dira gauza berak. Curricula denborarekin aldatzen doa. Pedagogia bezala. (Indo, 2015)

Aire (2015), berriz, ipar Euskal Herriko ikastoletan zentratu da hau esaterakoan:

“Gure eskola ofizialak ezagutuak dira Frantziako gobernuari begira. Horrek esan nahi du gure eskolek behar dituztela frantziako programa ofizialak segitu. Eta hor oztopo bat dago. Behar dugu jostatu ahal bezala egunerokotasun astun batean. Alde batetik, euskal kurrikuluma garatzea, eta goitik, Frantziatik datorrigun programa ofiziala bermatu behar dugu. Kontutan hartuz, azterketa ofizialak ere frantziarik begira daudela. Muga nagusia, beraz, bi gauza horien arteko josteta horretan dago”. (Aire, 2015)

Gauza inportatea da oinarrizko curriculum bat finkatzea. Lehen Airek aipatu bezaa, eskola arautatik at diren esparruak ere ukitu beharko lituzke kurrikulumak.

“Gure kurrikulumak irekia beharko luke izan kulturgintzan, gure ondarean, bai bersoeskoletan, bai antzerki munduan. Maskaradak ere, herri eskolak dira ere eta horiek ere euskal kurrikulum bat osatzen dutela bistan da”. (Aire, 2015)

Indok ere, ipar Euskal Herriko balantzea egiten du hezkuntza alorra ardatz hartuta:

“Iparraldeko egoera pixka bat begiratzeko, gaur egun euskal kurrikulumetik nahiko urrun gaude. Ikastoletan egiten dugu krixtoneko lana, baina gure kabuz da. Gaur egun, Seaskak egiten du lan hori hemen, irakasleek eramaten dute lan hori. Urtero antzeman behar ditugu frantziako azkunde nazionalak nahi duen kurrikulumetik bideak gure kurrikuluma hor nonbait sartzeko. Iparraldean euskara ez dago errekonozitua, ez da inondik inora hizkuntza ofiziala. Frantzian bakarrik frantsesa da ofiziala. Eta horrek dagoeneko hainbat zailtasuna sortzen dizkigu. Beraz, kurrikulumak oraindik gehiago. Baina egiten da lan bat, euskarazko materiala sortu behar dugularik, adibidea hemen hartuko dugu eta ez Toulouse, Paris edo Marzian”. (Indo, 2015)

3.2.3 Euskara

“Badira harremanak komertzialak eta horrelakoak ezagunak ditugunak, baina garrantzitsuena eta askotan garrantzirik ematen ez dioguna harreman emozionala da. Animalietatik desberdintzen gaituena emozioa da. Animaliek emozioak dituzte, baina ez dira horien jabe. Guk emozioen kontzientzia dugu eta hizkuntzak emozio horien banaketa egiteko balio du, partekatzeko. Eta nik nire emozioak euskaraz bizi nahi ditut. Eta ahazl izanez gero Iruñako batekin, Tuterako batekin, Gastez edo Trebiñu edo Mutriku edo Bilboko zein Donostiako batekin harreman horiek euskaraz bizi nahi diut, normala den moduan. Beste herrialdekoek hautatu duten moduan euren hizkuntzan emozio horiek bizi, nik nahi ditut nireak nire hizkuntzan bizi, hautatu dudalako. Baldin badago askatasun bat munduan hautuarena da eta Euska Herrian hautatu dugu euskararena. Eta ez dugu hizkuntza salbatu, baizik eta bizi nahi dugu, punto”. (Indo, 2015)

Anaiz Ozolmendik (2015), Uda-leko aisia taldeko kide eta Elkarrekin Zuberoan proiektuko begiraleak dioen bezala: *“Bi estatu gainean euskarak batzen gaitu. Bai euskarak, bai euskal kulturak egiten du denak elkar ulertzen eta elkar harremantzeko laguntzen gaitu”.*

Altunak (2015), Elkarrekin Zuberoak proiektuko hego Euskal Herriko begiraleak ere honako hau dio:

“Hizkuntzak batasun bat ematen digu, zazpi probintziak bat egiten gaituena. Batzuk hegoaldeko administrazioatik gatoz, beste batzuk iparraldetik. Batzuk gaztelera dakigu, beste batzuk frantsesa dakite. Eta azkenean, Euskara da denek dakiguna eta udaleku hauetan erabili dugun harraminta elkar komunikatzeko eta Elkar bizitzeko”. (Altuna, 2015)

“Bi estatu desberiden arteko kulturetatik edan arren, kultura eta hizkuntza berdina euskarak ematen digu. Lurraldetasunari batura eskaintzen dio.” dio proiektuko begiralea den Maddi (2015) Hernaniarrak. Ildo berdinari heltzen dio Lekeitioko begiralea den Koldo Rodriguezek (2015): *“Sortzen duen abantaila nagusia bat garela erakustea da. Hau da, muga guztien gainetik herri bat dagoela eta benetan*

euskararekin bizi daitekeela. Hori da euskarak ematen diguna. Ezarri nahi dizkiguten muga guzti horien gainetik zerbitek batzen gaituela eta euskara horretan binkulo nagusia da.”

Udalbiltzako lehendakaria den Mertxe Aizpuruak (2015), euskara lurraldetasunaren kohesiorako beharrezkoa ikusten du, lurraldeen arteko desoreka itzela dagoela ikusten baitu. Bere iritziz, hainbat eremutan euskara hizkuntza ofiziala den moduan eta baliabide eta laguntza nahikoa jasotzen duen moduan, beste leku askotan egoera ez da berdina.

3.2.4 Elkarrekin Zuberoan proiektua

3.2.4.1 Zer da Elkarrekin Zuberoan proiektua?

“Behar batek bultatzuta sortu zen Elkarrekin Lan Zuberoan proiektua” dio Nagore Amondarain (2015) Ikastolen Elkarteko kideak. Euskal Herriko zazpi lurraldeetako gazteak batzen zituen egonaldi bat sortzea zen behar hori. Hartu emanetan jarri behar ziren gazteak, herrialdeen arteko zubi lana egitea beharrezkoa zela ikusi zuten.

“Egonaldi hau behar batetik sortzen da. Zazpi lurraldeak ordezkatuta egotea nahi genuen baina ipar eta hego Euskal Herriko amildegi horretan egin nahi genuen lan. Txiki txikitatik amildegi hori kendu nahi genuen eta haurrak harremantzen joatea. Mesede horretarako sortu zan: ipar eta hego euskal herriko gazteak astebetetz gutxienez harremantzeko.” (Amondarain, 2015)

Anaiz Ozolmendi, Uda-leku asia taldeko kideak eta Elkarrekin Zuberoan proiektuko ordezkariak esan bezala, hasiera batean Udalbiltzatik etorritako proposamena izan zen. Udalbiltzak deiturik, hainbat asialdi eta hezkuntza alorreko ordezkariak bildu eta Mauleko herriko etxearekin eta baita Mauleko gazteluarekin ere zerbait egiteko aukera eman zitzairen. Horrela, Ikastolen Elkartek pausua eman eta iparradeko Uda-leku asialdi taldekoenera jo zuen elkarren artean zerbait

antolatzeke asmoarekin. Egun, Ikastolen Elkarte eta Udaleku Elkarreak elkarren artea diardute proiektua aurrera ateratzeko. (Olzomendi, 2015)

Mertxe Aizpuruak (2015) ere, proiektuaren berri ematen digu:

"Aldez aurretik bazegoen zerbaitetik abiatzen da. Ipar Euskal Herrian, udalekuak funtzionatzen zuten. Han biltzen ziren iparraldeko haurrak. Beste alde batetik ere, hemen, hegoaldean, Ikastolen Elkarreak antolatzen zituen udalekuen proposamenak eta udalekuen aktibidadeak. Bi horiek uztartzea du helburu. Nolabait harremanak sendotzeko eta Ipar Euskal Herria eta Hego Euskal Herriaren arteko harremanak estutzeko haurren bidez." (Aizpuru, 2015)

Elkarrekin Lan Zuberoan proiektua 2014.urtean sortu zen. Honako hau dio Ozolmendik proiektuaren inguruan:

"Alde batetik, betidanik antzeman dugu, Ikastolen Elkarte eta Uda-leku Elkarrean topatu gira horretan, inportantea dela Euskal Herriko haurrak batzea. EH oso bat dela eta hemendik haratago ere hizkuntza beste haurrek ere hitz egiten dutela. Hitz egiteaz gain, euskara ere aisialdi denboretan ere baliatzen da. Eta joko batzuen bidez, elkar ezagutza eta harremanana sortu nahi genuen EH osoko haurren harremanen artean". (Olzomendi, 2015)

Ikastolen Elkarrearen helburu nagusia euskal lurralde guztiak ordezkatu izatea zen. Aldi berean, hego eta ipar Euskal Herriko umeak harremantzea. Horretarako beharrezkoa zen iparraldeko eragile batekin hartu emana izatea. Hegoaldeko ume eta begiraleen kudeaketa Ikastolen Elkarreak egiten duen moduan, iparraldekoen elkarte batek egin behar zuen: hori, esan bezala Uda-Leku aisialdi taldeak egin du. Hala ere, gainontzeko lana (aurreprestaketa eta egonaldia) modu berdinean egiten dute. (Amondarain,2015)

Proiektuak oso alde positiboak erakutsi ditu denboran zehar. Hori dio Olzomendik. Harreman berriak sortu eta euskalki desberdinak entzuten dira. Gainera,

elkarrekin dauden denboran desberdintasunak agertu arren, elkarrekin bizitzen ikasten dute haurrek.

“Badira bizitzeko manierak eta izateko manierak ere desberdinak badirela, eta oztopo bat bezala hartu lirateke. Baina horiek beste manera batera hartuta izan direla eta horiek gainditu eta baten puntu positiboak hartu, puntu negatiboak bazter batera utzi eta bata bestarekin hitz eginez dena aintzineran ermaman dugu. Bi estatu desberdinek inposatu dizkigute izaitzeko manera desberdinak eta gauza horiek gure gainean dute zeregina eta hori ikusten da.” (Olzomendi, 2015)

Guilhem Da Costak -k (2015), Elkarrekin Zuberoan udalekuko begiraleak, esaldi ederra dio proiektuaren helburuaren inguruan:

“Mugaren bi aldetako haurrak nahastea biziki ona dela uste dut. Herriak bat egiteko. Bi estatu desberdinetan bizi gara eta hizkuntza bera mintatzen dugu, nahiz eta euskalki desberdina ukan. Eta muga hori haustea eta bat egitea gauza ederra dela uste dut.” (Da Costa, 2015)

3.2.4.2 Euskara elementu amankomuna

Euskarak batzen ditu zazpi lurraldeetako haurrak. Aurretik aipatu bezala, eta berriro erreferentzia eginez, Altunak esandakoak oso ongi definitzen du euskarak proiektu honetan izan duen eragina:

“Hizkuntzak batasun bat ematen digu, zazpi probintziak bat egiten gaituena. Batzuk hegoaldeko administrazioatik gatoz, beste batzuk iparraldetik. Batzuk gaztelera dakigu, beste batzuk frantsesa dakite. Eta azkenean, Euskara da denek dakiguna eta udaleku hauetan erabili dugun harraminta elkar komunikatzeko eta Elkar bizitzeko”. (Altuna, 2015)

Hurrek ere honela ikusten dute egoera. Euskara da batzen dituen, zerbaitek batzen badie. Ohitura desberdinetatik datoz, baina denok dute zerbait amankomunean: euskara.

Zertan diren berdinak galdetzerakoan, *“Euskaraz iten dugulako berba eta Euskal Herrikuak izaten”* dio 2014ko udaran emandako Elkarrekin Zuberoan udalekuan egondako Gernikako haurretako batek. Proiektu honetan parte hartu duten gazteek argi dute euskaldunak direla, eta are gehiago, euskara dela euskaldun egiten dituen. Euskal Herria bi estatu desberdinen menpe egoteak, kultura espainol eta frantsez iturrietatik edatea ekarri du. Honen ondorioz, hego eta ipar Euskal Herriko umeek ohitura desberdinak dituzte egunerokatasunean.

“Ohitura desberdinak dauzkagu, baina denak gara euskaldunak” dio proiektuan parte hartu duen beste haur batek. Janari kontuak, hitz egiteko moduak edo logeletan neskak eta mutilak elkarrekin egon ezin izanak dira hegoaldeko aurrei gehien arritu zien kontuak.

Desberdintasun eta berdintasun hauen arira, hauek dira begiraleek esandako hitzak:

“Berdintasuna dago, azkenen denak dira umeak eta denak nahi dute sei egun horietaz disfrutatu eta ondo pasa. Baina, desberdintasuna izateko eran dago. Ematen du krixton topikoa dela, baina iparraldeko umeak jaso duten heziketarengatik pausatuagoak dira eta, aldiz, hegoaldekoak bizizagoak dira.” (Altuna, 2015)

“Janan. Hegoaldeko neska eta mutilak errexkiago nahasten dira iparraldekoak baino. Eta ikusi dut iparraldeko mutilak errespetu gehiago dutela neskengan hegoaldekoak baino. Berdintasunak, aldiz, kulturaletik ikusi ditut. Biek entzun eta ezagutzen dituzte musika eta talde berdinak.” (Da Costa, 2015)

“Berdintasun handiena eta amankomunean daukatena Euskara da. Azkenean, beraiek komunikatzeko daukaten hizkuntza Euskara

bihurtzen da. Iparraldekoak dakite Euskara eta Frantsesa eta hegoaldekoek Gaztelera eta Euskara. Orduan, bata eta besteak ez dira ulertzen eta azkenean Euskara besterik ez daukate.” (Aranburu, 2015)

“Ezberdintasun gehiago ditugu guk, haurrek baino. Egia esan, oso modu naturalean funtzionatu dute eta ez da ezberdintasunik sumatu haurren artean. Ez zan ageri nor zan iparraldekoa eta hegoaldekoa zein zen. Guk ditugun aurreiritziak eta guk dauzkagun mugak oraindik ez daukate. Agian adinarekin lotutako kontu bat da eta ez daukate eta hori igarri da.” (Rodriguez, 2015)

Batek baino gehiagok aipatu du euskalkiena, dauzkaten desberdintasunen inguruan galdetu diegunean. Hala ere, Aranburu (2015) begiraleak aipatu bezala, euskara da daukaten berdintasunik handiena. Euskalki desberdinek hizkuntza bera aberasten du. Hitz guztiek dute sinonimo bat, eta elkar ulertzea erraza da hizkuntza bera erabiltzen ari dira eta. Horren adibide, 2014ko udan Mauleko egonaldian egon zen haurretako batek ematen digu: “Akituta zer den ikasi genuen. Nekatuta esan nahi du”. Beste batek, “erran” edo “bertze” hitzak ere aipatzen zituen. Beraz, argi dago, hasieran ulertzeko hainbat arazo egon arren, azkar batean hitz berriak ikasi eta erraz ulertu zirela.

Gainera, begirale honek dioen bezala, hitz berriak ikasi ahala, bereziki horretarako sortutako sinonimoen zuhaitzean idazten zituzten hitzak. Hizkuntzaren aberastasuna bermatzeko asmotan.

3.2.4.3 Espektatibak eta balorazioa

Balorazio oso positiboa atera dute antolatzaile, begirale zein guraso eta haurrek.

“Udako balorazioa biziki positiboa izan da, bai elkarlanaren aldetik ekarri duena elkarte batentzat eta bestearentzat eta baita haurren arteko harremanarentzat ere. Oraindik ere jarraitzen dute harremanetan eta balorazioa positiboa egiten diogu.” (Olzomendi, 2015)

Elkarrizketatutako guraso gehienek ordea, proiektuaren berri hurrek bertan eman zieten arren, behin informatuta eta ikusita egunez egun jasotzen zituzten berri positiboak nolakoak ziren, oso kontent eta errepikatzeko gogoekin geratu dira.

“Aurretik ez genun ez genun ezagitzen eta gero egunetik egun udalekuetatik jasotako informazioa “Amaren alaba”, “Gartxot”, “Asiskoren maleta”.. bonba bat iruditu jakun” (Gezunaga, 2015)

“Asko poztu gara lagun asko egin dituelako, leku pila batetako jendekin harremandu da. Hitz berri asko ikasi ditu. Begira hemen “bertze” esaten dute, hemen “erran”. Asko poztu gara” (Plaza, 2015)

Balorazio zinez positiboa izan arren, argi dago lanean jarraitu behar dela. Harremantzea da Euskal Herriak behar duena. Hauxe dio Paskal Indok (2015) horren inguruan:

“Uste dut Bidasoa Atlantikoa bihurtu dela. Iruditzen zait ia errezagoa dala iparraldeko batentzat amerikar kultura jasotzea, Gipuzkoako edo Nafarroako kultura jasotzea baino. Eta Donostiatik berdin. Eta hor badago zailtasun handi bat: nola egin egiazko trukaketa bat, egiazko elkar trukaketa hori harreman fisikoan bilakatzeko. Hukitzen garen heinean, bada harreman fisiko bat. Ni ados naiz twitter eta horiek euskaraz asko baliatzen ditugula, baina harreman emozionala da lortu behar duguna. Euskaldun batek ez baditu hilabetean 500 kilometro egiten EHan bizitzeko, nolabait zati bat galtzen du. Horrek esan nahi duelako herri ondoan gelditzen dela eta harreman hori galtzen duela. Hori da herri bat eraikitzea, alde batetik bestera joatea, pote bat hartzea edo txorizo puxka bat, baina sinpleki hori da egin behar dena. Jendearekin harremanak egin eta euskaraz hitz egin. Hori ere lkastoletan gehiago egin behar dugu. Argi da ez dugula nahikoa egiten eta nahikeria ez dela nahikoa harreman horiek lortzeko. Harremanak ez dira artifizialki egiten, sortu behar dira. Jaietan, Herri hurratsetan eta horrelakoetan egiten dira.” (Indo, 2015)

Olzomendik ere, harremantzea dela gakoa baieztatzen du:

“Harremanak sortzea eta elkar ezagutza sustatzea, gehienbat EH herrian dauden haurren artean, da behar dena. Bi estatuen artean da EHa, eta bata bestearen arteko harremana ez da nahikoa egiten. Eta horrelako proiektu bati esker harreman horiek egiten al dira.”
(Olzomendi, 2015)

Gurasoek ere argi dute harremanak egitea dela Euskal Herriaren bidea. Lurralde kohesioa bultzatuz, harreman fisikoak egin behar dira. Euskara da dugun herraminta nagusia, hori baliatuz harremanak sortu.

4.ONDORIOAK

4.1 Lurraldetasuna

Euskal Herria, zazpi probintzietatik osatutako herri bat izanik, herri ukatua da. Zoritxarrez, bi estatuen menpe bizi den herria dugu eta hori ezin da ukatu. Gure herriaren lurraldetasunaren inguruan hitz egiten dugunean sortzen da arazoa.

Herria ez dago ondo. Menderakuntza egoeran dago. Izan ere, gure herria osatzen duten elementu guztien jabe dira bai Espainia eta baita Frantziako estatua ere. Eta, gu, berriz, horiek inpostutako guztiaren titereak.

Ane Ablanedok dioen bezala, herria likidatu nahi duten bi estatuek lortzen ari dira eurak nahi duten diskurtsoa guregan barneratzen. Lortzen ari dira gure nortasuna eta identitatearen gaineko zalantza sortzea. Eta, iada, ez daukagu hain argi garai batean argi geneukana: nor garen.

Aurrekoek argi zeukaten herri bat ginela eta estatu bat genuela. Agirrek eta Rekaldek (2012) azaltzen duten moduan, estatu bezala antolatu dugu gure burua mendeetan zehar, baina, inposatzileek memoria hori kendu egin digute azkeneko urteetan. Lehen argi genekan estatu bat genuela eta nazio bat ginela, orain berriz,

nahastuak nahasturik zalantzan jartzen dugu nazioaren kontzeptua. Ondorioz, lurraldetasunean, eta orokorrean, herri bezala definitzen gaituzten gauza horietan, geroz eta hurbilago gaude etsaiak gugandik nahi duen likidazio horretatik.

Hitzarmen Nazionalak dioen moduan, lurraldearen antolamendua ezinbestekoa da Euskal Herriko etorkizun orekatu eta kohesionatua diseinatzeko. Baina bistan denez ez da hala gertatzen gaur egun. Izan ere, herriak lurraldetasun kontzepturen imaginarioa galdu duelako eta lozorro batean bizi delako. Eta guzti horrek, deboran luzez, asimilazio egoeran egotea, lurralde kohesio ezak, gizartearen zalantzak... ahuldadea dakar garen herri aske hori lortzeko.

4.2 Euskal estatu eza

Estatu baten beharra dago herri honek aurrera egitea nahi badugu. Hori izango litzateke lehen pausua askatasunerako bidean. Izan ere, estatua da lurralde bat kohesionatu eta nazioaren izaera eta funtzioa osatu eta sendotzen duena.

Estatua izatearen beharra independentziarekin elkarlotua doan ideia da. Hau da, Euskal Herriak bi estatu menperatzaileen atzaparretatik libre izan dadin, aske izan dadin, hori bideratuko duen herriaren figura behar du izan. Eta, figurai hori estatua dela argi dugu.

Estatuak babes ideologiko bat emango dio herriari, gaur egun ez dagoena. Aurretik azaldu dugun moduan, herriak auzitan jarri du herri honen izaera eta historia. Zalantzan jartzen ari da kolonizazio efektu eta imperialismoari komeni zaion diskurtsoaren efektuari esker. Ondorioz, gure burua zalantzan jartzen hasi gara.

Beraz, Euskal Herriak herri izateko askatasuna (askatasuna berdin estatua) eskuratzea beharrezkoa du eta askatasun hori lortzeko ezinbestekoa da garai batean izan zuen estatu hori erreibindiktzea. Historian atzera begiratu behar dugu eta ikusi nortzuk garen, zein zen gure herria, gure lurraldea eta konsziente izan okupazio bat jasan genuela, egun arte iraun duena. Helburua okupazio egoera horretatik aske izatea behar du izan. Eta jakin okupatutak izateagatik aske izateko

eskubidea dugula. Hortaz, garai batean izandako estatua berreskuratu behar da eta ez berri bat sortu.

Egungo gizartea, Ariznabarretak esaten duen moduan, lozorroan bizi da. Guk beste hitz bat erabiliko genuke hori deskribatzerakoan: erosotasuna. Gaur egungo gizartea, erosotasunean bizi da, inguratzen dituzten alderdiei jaramon egin gabe. Ariznabarretak dioten bezala, belarrondoko bat jasotzen dugunean altxatzen gara injustizien aurrean, baina ez gara konturatzen egunerokotasuneko lan bat izan behar duela eta ez une puntualetan. Horrekin ez goaz inora.

4.3 Euskal identitatea

Euskal identitatea, beste zenbait aldagai batzurekin batera, Euskal lurraldea beste lurraldeetatik desberdindu eta gailentzen duena da. Euskal Herriak, sustrai oso potenteak dituen identitatea dugu eta horren ondorioz, bizirauten du egun herriak. Herriaren singuliradide moduan definitu genezake euskal identitatea.

Identitateak, eta, esan dugun moduan, gureak bereziki, herri batek duen ondarerik garrantzitsuenetarikoa da. Ramirez de Okarizek dioten antzera, identitateak gizakiak historian zehar izandako bizipenak neurri batean deskribatzeko balio duen elementua da, bita horiek berreskuratzeko elementua ere. Herri baten atzean dagoen iragana kontatzeko balio du.

Identidadea gu definitzeko balio duen baliabidea da. Gure belaunaldi eta iraganaren transmisioa bideratzen duena. Baita, nortzuk garen eta nondik gatozen adierazteko harraminta garrantzitsua da. Populazio baten memoria historiko eta etengabe aldatuz doaz gizarte baten inguruan belaunaldiei jarraipena ematen dioena da.

Euskal identitateak mende askotan iraun du. Inguruko baldintzen arabera egokitzen eta berritzen jakin duelako. Dena dela, egungo okupzio egoerak ez dio mesederik egiten eta herriak ez du oso garbi zein den euskal identitatea. Ondorioz, euskal identitateak, orain arte bezala, denbora luzean iraun dezan eta, gu, hau da, herri honetako nortsuna galdu ez dadin, gure identidada zein den

erronkari eutsi behar diogu. Hau da, etsaiak direnen diskurtsoez urrundu behar gara eta sortzen dizkiguten zalantzei aurre egin behar diegu.

Identitatearen kontu hau lotuta dago gure lurraldearen bizirupenarekin eta nortzuk izan nahi garenarekin. Izan ere, gure sustraiak zeintzuk diren zalatza badugu eta nortzuk garen erabaki behar badugu, gure lurraldearen antolamendu bat lortzea zaila, ezinezkoa ez esatearren, izango litzake. Eta, beraz, lurralde kohesio eta independente bat erreibindikatzearen helburua tontakeria hutsa izango litzake.

Ez dugu argi zein den gure benetako nahia, gure estrategia. Ondorioz, alperrik egingo diogu aurre gure etsaiek barneratzen digutenari. Nazioaren, herri oso eta bateratuaren kontzeptua desagertu da eta jendeak ez dauka horren garbi zer den herri honetik eskatu edo espero duena. Joxe Manuel Odriozolak dioen moduan, euskalduntasuna galdu dugu eta sarritan euskaldun izatearen planta egiten dugu horrek benetan zer supostzen duen jakin gabe.

Euskal identitatearen zalantza jartze horrek, lurraldetasunarekin batera, ahuldadea erakusten du. Bi elementuak bata besteari egiten diote kalte. Lurraldetasunaren imaginarioa zalantza jartzeak kalte egiten dio identitatearen biziraupenari eta identitatearen eraikuntzaren norazkora galtzeko arriskuan jarri.

Hala ere, euskal identitatea ez da egun batetik bestera desagertzen eta are gutxiago hain indartsua izan eta duen kontua izanik. Baina, identitateak etorkizun izan dezan, beharrezkoa da urteetan zehar iraunarazi digun historia, kultur ondarea, hizkuntza, lurraldetasuna...eta definitzen gaituzten guztiari uko ez egitea. Horretarako, lurraldetasunaren antzera, herri honek behar duena estatu propioa litzake, benetako aldarrikapena bermatuko lukeena.

4.4 Euskara

Bat gatoz Ariznabarretak dioenarekin: "Euskararik gabe ez dago Euskal Herririk". Euskara, lurraldetasuna eta identitatearekin batera, gu definitzen gaituen beste ezaugarrietako bat da. Hizkuntza funtzeskoa da herri bat definitzerako garaian eta gurea zer esanik ez. Euskara ere beste estatu inperialisteetatik desberdintzen

gaituena da eta horietatik banantzen gaituena. Are gehiago, banantzeaz gain, gure herria batu eta indartsuagoa bihurtzeko elementurik garrantzitsuena da. Gure benetako nortasuna ematen diguena da. Beraz, funtsezkoa ere gure herriaren biziraupenerako.

Zoritxarrez, administratiboki hiru zonaldeetan banatuak gaude, bi estaturen menpe aurkitzen direnak. Baina, muga horietatik gain, badugu batasuna eta bat egiten gaituen berezko ezaugarri oso potentea. Eta, hori gure hizkuntza da, Euskara.

Beñat Agirrek ondo azaltzen du:

“Euskara herri honen izaera naturala da”. Egungo banaketa administratibo arifizialak gora eta behera, euskara hizkuntza komuna izateak baieztatzen du nazio bakarreko herritarra garela”.

Euskarak batasuna ematen dio herriari. Euskaldun iztearen sentimendua beharrezkoa da gure herrien arteko mugak gainditzeko eta iparraldea eta hegoaldearen artean zubi hori osatzeko. Zerbaitek lotzen bagaitu euskara da. Egoera txarra den arren eta espainoltasuna eta frantseztasunaren alde egiten dutenak asko izan arren, badago borondatea herria biziraun nahi izateko.

Hala den arren, borondate hori ez da ondo kanalizatzen ari. Jendeak ez du drama ikusi nahi izaten. Nahiago du drama ikusi baino, ilusioarekin bizi. Herriari komeni zaio ilusioari heltzea erosoago egiten baita. Ondorioz, beti bilatzen ditugu ilusioanatzeko gogoak eta askatasunerako bide okerretik goaz. Izan ere, lehen aipatu dugun bezala, askatasuna berez dagokigun gauza bat da okupatuak izate hutsagatik. Garelako izan behar dugu aske eta beraz, independente. Askatasun bide horretan ekimenak egiten dira, baina askotan benetako bidetik hurrundu eta indarrak galtzen ditugu horietan. Eta, modu honetan, ez dugu indar nahikoa independentziren benetako bideari ekiteko.

Helburua, beraz, independentzia da. Eta helburu hori argi ez badugu eta ez badugu lehen helburu gisa ikusten, euskara, lurraldetasuna, hizkuntza eta beste guztiak ez du etorkizunik ere.

4.5 Hezkuntza

Hezkuntza herri baten muina da. Hezkuntza, lurraldetasuna eta hizkuntzarekin batera, beste ezaugarri garrantzitsua dugu. Beste bizidunetatik desberdintzeko balio du hezkuntzak. Pertsonen eta kolektibitatearen prozesuan eragin handiena duen ezaugarria da. Gizaki bezala definitzen gaituzten balore eta gauza guztiak (kultura, identitatea,...) aberasteko balio du. Eta, hortaz, ezinbestekoa ere herria osatzerako unean.

Identitateari dagokionean, hezkuntza da hau osatzeko dugun tresna nagusia. Honen beharra dugu norberaren nortasuna osatu eta transmititu ahal izateko. Baita, lurrate bateko kultura transmititzeko. Honela, belaunaldiz belaundali lortuko dugu herriaren nortasuna aurrera egin dezan.

Ezin daiteke aipatu gabe utzi, hezkuntza ere estatu batek duen harraminta boteretsuena dela. Estatuak hezkuntzaz baliatzen dira herri bat bideratzerako garaian eta modu honetan lortzen dute eurek nahi duten boterea gauzatzea. Eurak duten boterea bermatzeko martxan jartzen duen azpisistema bat dela esan genezake.

Euskal Herriko hezkuntzaz ari bagara, gure suntsipena nahi duten bi estatuen menpe dagoela ezin dezakegu ahaztu. Euskaraz bada ere. Beraz, heziketak sekulako lana egin dezake gure identitatea sustatzen. Baina argi izan behar dugu hezkuntza Espainia eta Frantziaren menpe dagoela. Ondorioz, hezkuntza eta euskal indetidadea sustatzea kontrajartzea litzake eta nekez lortuko genuke gure nortasunak aurrera egitea. Beraz, botere bati aurre egiteko ez baldin bada estatu propioa duen hezkuntza sistema alternatibo bat aldarrikatzen, inposatu diguten hezkuntza sistema horrek irentsiko gaituela argi dugu.

Euskal hezkuntza sisteman, estatu Espainola eta Frantsesaren eragina garbia da. Hezkuntza sistemaz baliatu dira beraien identitate nazioanala sozializatzeko eta bide batez, beraien hizkuntza, kultura eta historia gurean ezartzeko. Indok dioen bezala, gaur egun, bai hegoaldeari dagokionean baita iparraldekoiei dagokienean

ere, errazgoa da amerikar kulturarekin harreman gehaigo izatea, mugaren bestaldean aurkitzen diren ohiturekin baino.

Mugak sekulako efektua du. Hau zeharkatu eta beste mundu batean zaudela iruditzen zaigu. Geroz eta zailago zaigu bi mugatik alde baterako eta besterako euskaldunen harremanak sortzea, erreferentziak alde batean geroz eta espainolagoak direlako eta bestean geroz eta frantsesagoak. Beraz, gauza askotan ez dugu bat egiten. Ez umorean, ez ikusten ditugun filmetan.. Hori dena hezkietaren ondorio da.

4.6 Kurrikuluma

Kurrikuluma hekuntza batek duen transmititu nahi duen hori gauzatzeko balio duen herraminta da. Beraz, funtsezkoa ere euskal hezkuntzaz hitz egiten dugunean. Oinarrizko kurrikulum bat sortzea ezinbestekoa da nahi dugun hori gauzatu ahal izateko. Azken finean, kurrikuluma hekuntzak bermatu nahi duen hori zabaltzeko balio duena da.

Aipatu dugun moduan, egun, Euskal Herrian, egoera desberdinak ditugu. Administrazio desberdinetan banatuak gaude eta bakoitzak bere kurrikuluma du. Beraz, zaila da Euskal Herri osoan ezagutza berdina izatea bakoitzean berea baldin badu. Gainera, mugatik alde batera eta bestera dagoen saltoa itzela da eta ondorioz, oso zaila da denek errealitate berdina partekatzea bakoitzak bere badu.

4.7 Udalekuetako bizipenak

1) Elkarrekin Zuberoan parte hartu dutenen artean, begirale izateko esperientzia urria den arren, orokorrean, denek esperientzia positibo moduan azaldu dute. Gainera, bat datoz udaleku hauen berezitasuna lehen aldiz, zazpi probintziak batzen dituen udaleku batzuk direla diotenean. Azken finean, proiektu hau besteekiko desberdin egiten duena hori da. Hegoaldeko eta iparraldeko haurrak batu eta hauen artea zubi lana egiten duen udaleku batzuk dira.

Gainera, berezitasuna izateaz aparte eta udalekuak aberasten duten ezaugarria ere bada. Izan ere, alde bateko zein besteko hurrek aukera paregabea dute egungo errealitatea ikusteko eta mugatik haratago beraien antzera bizi diren beste haur euskaldunak badirela. Euskal Herria zazpi probintziez osatutako lurralde bat dela eta lurralde hori batzen duena euskara dela.

Beste berezitasun baten moduan, erritmo aldetik, ere bi zonaldeen artean zein desberdintasun handia dagoen ikustea izan da. Nahiz eta bata bestearengatik elkar egon, lerro imaginario horrek bi lurraldeen arteko ohiturak oso desberdinak izatea eragiten du eta askotan, lerro hori zeharkatzen dugunean, badirudi beste herrialde batean zaudela eta ez zure herrian.

2) Haurren arteko berdintasun eta desberdintasunen artean elementu amankomun bat gailendu da: Euskara. Lurralde bakoitzak bere euskalkia duen arren, zazpi lurraldeek partekatzen duten ezaugarri bat nabarmena da eta hori hizkuntza da. Iparraldekoek, Frantziako estatupean egon arren, frantsesaz gainera, euskara ere euren hizkuntza dute eta hegoaldekoek espaiionalerakin berdin. Hortaz, hauek bat egiten dutenean euskara da harremanak egitera bideratuko duena. Ondorioz, begiraleen esanetan, iparraldekoa edo hegoaldekoa izatea ez da nabarmenki sumatzen den gauza bat.

3) Hurrek desberdintasun gehiago ikusi dute begiraleen artean haurrengan baino. Horrela da bakoitzak jaso duen formakuntzarengatik. Izan ere, bakoitza punta batetik joan izana eta formakuntza propioa izatea, hurrekiko jarrera modu batera edo besterako izan da. Hegoaldekoak, esaterako, erritmo biziagoa dute eta gauzak magnifikatzea eta handitzeko ohitura dute. Iparraldekoak, berriz, lasaiagoak dira.

4) Euskara hizkuntza amankomuna izan arren, hurrek euren euskalkian hitz egiten zuten eta hori ere udaleku horiek duten aldeko ezaugarritzat joko genuke. Euskalki desberdinak izatea haurren arteko komunikazioa eta hiztegia aberasten du. Hau da, hitz bera esateko, bakoitzak bere euskalki erabiliko du eta modu

horretan, ondoko haurra konturatuko da hitz hori esateko hainbat modu badaudela.

5) Beraz, orokorrean, Elkarrekin Zuberoan Udalekuak hasiera batean finkatutako helburuak betetzen dituela esango genuke. Azken finean, hauen helburua zazpi lurraldeak batu, haurren arteko harremanak sortu eta ipar eta hego Euskal Herriko ohiturak eta kultura partekatzen dute.

5.ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

-Ablanedo, A. : Herriaren norabideaz. Gure Berriak. (Youtubeko bideo elkarrizketa). Hemendik jaso:

<http://www.gureberriak.com/2015/04/21/hezkuntza-sistemaz-ane-ablanedo/>

-Agirre, B. (d,g) Hizkuntza da nazioa. Bizkaiko Foru Aldundia (2009): Plangintza eta hirigintza-diseinua. Jakin jardun. Ingurumen saila. Hemendik jaso:

http://www.bizkaia21.net/fitxategiak/09/bizkaia21/Saber/patrimonio_euskera.pdf

-Azurmendi, M.J, Larrañaga; N; Apalategi, J (2008). Identitate Etnolinguistikoa (IELA) Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEan). III. Atala Erramun Baxok eskainitako lana. Bat Soziolinguistika aldizkaria.67.zenb. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Hemendik jaso:

<http://www.soziolinguistika.eus/files/07%20MJ%20Azurmendi%20et%20al.pdf>

-Bauman, Z. (1987): *Legislators and interpreters*, Polity Press, Cambridge.

-Bilbao, A; Erriondo, L; Garagorri, X; Legarreta, P. (2006): Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum, Euskal Curriculum Baloratzeko eta hobetzeko proposamena. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, Kristau Eskola, Sortzen-Ikasbatuaz. ISBN: 84-934173-5-1.

Hemendik jaso:

<file:///C:/Users/PORTATIL/Downloads/euskaraz.pdf>

-Castells, M.(2000): La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad (28-34). Vol. II. Madrid: Alianza Editorial.

- Da Silva, T. (2001): Espacios de identidad. Nuevas visones sobre el curriculum. Barcelona: Octaedro.
- De Ventós, R. (1994): Nacionalismos: el laberinto de la identidad, Espasa, Bartzelona.
- Euskara Institutua, EHU, "Sarrera", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, ISBN: 978-84-693-9891-3. Hemendik jaso:
www.ehu.eus/seg
- Ezkurdia, G (2008): UPV/EHU. Euskal Herria gaiaren garapena XX. eta XXI. mendeetako testuliburuetan. Bilboko Irakasle Eskola. Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila. Ramón y Cajal, 72. 48014 Bilb. [1137-444, 16; 109-142]. Hemendik jaso:
<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/16/16109142.pdf>
- Fernández, F. (2001): El concepto de patrimonio cultural desde la perspectiva de la antropología. In: Iglesias, J.M. (ed.) Cursos sobre el patrimonio histórico,6, (39-52). Reinos: Universidad de Cantabria -Ayuntamiento de Reinos.
- Fontal, O. (2003): La educación patrimonial. Teoría y práctica en el aula, el museo e internet. Gijón: TREA.
- Gezala, I. (2015): Lurraldetasuna. Orreaga Taldea. [blog mezua]
- Ipar Hegoa Fundazioa (2002): *Euskal Estatuari bidea zabaltzen*. Bilbo.
- Jessop, B. (1990): *State theory. Putting Capitalist States in their place*. Polity Press, Cambridge.
- Le Goff, J.; Nora, P. (1974): *Faire d l'histoire*. París: Gallimard.
- Miller, D. (1997): *Sobre la nacionalidad*, Paidós, Bartzelona.

-Odriozola, J.M (Urtarrilare 18a, 2015): Memoria historikoare beharraz. Gure Berriak. Hemendik jaso:

<http://www.gureberriak.com/2015/01/18/nafarroako-erresumaz-joxe-manuel-odriozola/>

-Ortega, N.I. (2001): El Patrimonio expresión de la identidad de un pueblo. El itinerario histórico-artístico como propuesta didáctica. In: Estepa, J., Freira, F. eta R. Piñeiro (coords.). Identidades y territorios (507-516). Oviedo: KRK.

-Perez, K; Bilbao, B (2005): Curriculuma eta testuliburua: edukien azterketarako ikerketa lerroak. Revista de Psicodidáctica, vol. 10, núm. 2, 2005, pp. 141-158. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Vitoria-Gazteiz. Hemendik jaso :

<http://www.redalyc.org/pdf/175/17510211.pdf>

-Ramirez de Okariz, I (2013): Gertuko kultura ondarearen transmisioa eta hezkuntza eragileak lehen hezkuntzan. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI), Mondragon Unibertsitatea Unibertsitatea: MU. ISBN: 978-84-8438-468-7.

Hemendik jaso:

http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Inigo_Ramirez_de_Okariz_TESIA.pdf

-Sortzen Ikasbatuaz (2013) :Hizkuntza sistema propioruntz. Euskal Eskola Publiko Berria.

Hemendik jaso:

<http://www.langile.eus/fitxategiak/dokumentuak/doks/gogoeta-1bloke-oso.pdf>

-Tellitu, Koldo (Urriaren 3a, 2014): Zenbat Ikastola daude Euskal Herrian?. EITB. (youtubeko bideoa).

Hemendik jaso:

<https://www.youtube.com/watch?v=kiNqJdoNzbg>